



ARGIA



KUTXABANK
ETXE GABETZE KASU
LAZGARRIA IRUNEN


ARABA
LEHEN ALDIZ
BILDU DIRA GAZTE
EUSKALTZALEAK

EMAKUME PRESOK
ZIGOR PENALAZ GAIN,
ZIGOR MORALA

MIXEL BERHOKOIRIGOIN, 'BAKEAREN ARTISAUA'

**"LUHUSOKO EFEKTUA
BALIATU BEHAR DUGU
SAIO BERRI BAT EGITEKO"**





HAUTATZEN DAKITENENTZAT

ARGIA komunitateko kide bazara
eta eskatua baduzu, etxean
jasoko duzu.

Gainerakoentzat,

9,95€

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Nortzuk dira Boli Kostako *mikro*bio gazteak?

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Andoni Mujika
- 19 Eric Dicharry
Itxaro Borda



Emakumezko euskal preso politikoen egoera lehen lerroa ekartzeko ekimena abiatu dute hainbat preso ohik eta mugimendu feministak. (ARGAZKIA: KALERA KALERA)

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
DIEGO GARATE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Mirentxu Loyarte, zinegilea: "Zergatik ez Eusko Labela zinema ekoizpenetarako ere?" / Danele Sarriugarte Mochales
- 20 | Emakume presoak: Zigor penalaz gain, zigor morala / Jenofa Berhokoirigoin
- 26 | Mixel Berhokoirigoin: "Luhusoko ekintzaren efektua baliatu behar dugu beste saio bat egiteko" / Mikel Asurmendi
- 32 | "5 urtez ur eta argi gabe eduki nau eta atea blindatu dit Kutxabankek" / Mikel Garcia Idiakez
- 34 | Mbya-guaraniak eta Euskal Etxea: Elkartasunean oinarritutako lotura / Unai Oiartzun
- 36 | Arabako euskalgintza: Lehen aldiz elkartu dira zazpi kuadrillatoko euskaltzale gazteak / Onintza Irureta Azkune
- 38 | Sofia de Esteban, gorra jaiotzez: "Zaila zaigu oraina bizitzea" / Eider Madina Berasategi
- 44 | Joxe Austin Arrieta, idazlea: "Arma hilgarria izan daiteke introspektzioa" / Miel A. Elustondo
- 47 | Arte iruzkina: Ainize Sarasola / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia


DOAN ETA LIBRE

 ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARAU DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diegu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (43 € urtean).

Lurraren historia porlanak idatz ez dezan

2012ko urtarrilean okupatu zuten lehen aldiz Andra Mari auzoko Tosu landa. Getxo metropolitarran porlanak estali ez duen eremuan parkinga ezarri nahi dute, inguruan eraiki asmo dituzten 8.000 etxebizitzaren aurrekari. Baratze komunitario zena erresistentzia eta desobediencia gune bilakatu dute, udal gobernuak (EAJ) obrak berehala abiatu nahi dituelako. Nonahi ugaltzen ari diren bi mundu ikuskera kontrajarrien arteko talka dugu Tosun: lurra negoziarako ala bizitza bermatzeko, burujabetasuna ala politika profesionala, nekazaritza ekologikoa ala monokultibo industrial globalizatua, auzo/herri nortasuna ala uniformizazioa modernitatearen izenean...

Argazkia: Aritz Loiola · Testua: Axier Lopez



OSU
ZIRIK

SKO GARA
ZIRIK
GAUDE!

L EMENTO
NO SE COME
TOSU BETIKO

LUR BARIK
ARNASIK
EZ



Konfiantza mozioa aurkeztu du Gorka Urtean Gasteizko alkateak, hiriko 2017ko aurrekontuak aurrera ateratzeko formula gisa.

t “Bilduk PPrekin bat egin du helburu bakar batekin: EAJ-PNV eta Gorka Urtean alkatea ahuldu”

@pvnvgasteiz

t “Gorka Urtean, aurpegia duzu gero! Udaleko 3. indarra izanik 2.ari (EH Bildu) botere nahia leporatzea. Alkatetza eman zizuten!”

@EnekoCompains

m “Espero dut hemendik aurrera elkarrizketaren bidez EH Bildurekin akordioak berreskuratzea, hiriarren onerako”

Gorka Urtean (*Berría*)

m “Bere aurrekontua berak bakarrik onartzea irabaztea baldin bada, Urteanek irabazi du”

Miren Larrion (*Gara*)



50.000 pertsonak babestu dituzte Mas, Ortega eta Rigau

Xabier Letona

@xletona

Artur Mas Generalitateko presidente ohia eta bere lehendakariorde Joana Ortega eta Hezkuntza sailburu Irene Rigau epaitzen ari dira, 2014ko azaroaren 9ko kontsulta antolatzeagatik; desobedientzia eta prebrikazioa leporatzen diete. Masentzat 10 urteko inhabilitazioa eskatzen du fiskaltzak eta bi sailburuentzat bederatzita urte eta erdi.

ANck eta Omniumek deituta 50.000 herritarrek eman dute izena auziperatuak epaitegira laguntzeko, “Otsailaren 6an guztiok epaituko gaituzte” lelopean. Ostiralera arte antolatuta dituzte mobilizazioak.

Independentismoak orain arte bere jokaldi garrantzitsuenatzat jotzen du azaroaren 9ko kontsulta, aurreikuspenak guztiz gaindituz 2,3 milioi lagunek eman zutelako botoa egun hartan eta horietatik 1,9 milioik

independentziaren alde. Oso kopuru handia da hori, batez ere kontuan hartuta Konstituzio Auzitegiak debekatu egin zuela kontsulta.

Aurreko hilabeteetan Madrilan etengabe egin zion mehatxua Generalitateari eta horren ondorioz honek kontsultaren ezaugarritzea aldatu behar izan zuen, loteslea izan behar zuena herritarren partehartze prozesu bihurtuz. Masek, hala ere, izaera loteslea eman nahi izan zion, eta baiezekoak irabaziz gero hauteskunde autonomikoak plebiszitarioak bihurtuko zituela iragarri zuen.


Egiatzko erreferendumaren testuinguruan dator epaiketa. Printzipioz irailerako iragarri zuen Generalitateak, baina azken asteotan entzun dira ahotsak –ERCKoak eta CUPEkoak batez ere– esanez akaso uda baino lehen egin daitekeela. Hau ere debekatu du Konstituzio Auzitegiak. 2014an ez bezala, Generalitateak eta Kataluniako Legebiltzarrak lotesletzat hartuko dute erreferendumaren emaitza. Giroa gori-gori dago.

“Ezin da, alde batetik, indarkeria matxista salatu eta bestetik erasotzaileak saritu”

DURANGOKO PLATAFORMA FEMINISTA

Durangoko Plataforma Feministak aurkeztutako mozioa onartu du Durangoko Udalak, Paul Abasolo Urrezko Baloirako hautagai ez izatea eskatuz. Futbolaria 2010ean hiru sexu erasoren atzetik zigortu zuten eta indultu partziala jaso zuen. “Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko borrokan, koherentzia eta ikuspegi integrala behar da. Bere hautagaitza, ekintza mespretxagarriak egin dituen pertsona baten irudi garbiketa da”, adierazi du Plataformak. **2017-02-01**







Istripu batek sute erraldoia eragin du AEBetako erraustegi batean.

Kontu ilunak Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketan

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Ainhoa Intxaurrandietak iragan azaroaren 29an Zizurkilen eman zuen hitzaldian azaldu zuen nola 2013an, bera GHKko lehendakariorde zela, dokumentazio gakoa gordetzen zuen ordenagailua lapurtu zieten. Auzitegiak 2015ean itzuli zuten ordenagailua eta perituen arabera ordenagailu horretako 70.000 artxibo ezabatuak izan baziren ere, 190 artxibo berreskuratzea lortu zuten. Horien artean bat, oso garrantzitsua: zenbakiekin kontuak erraz egiteko aukera ematen duen Excel liburu bat. Intxaurrandietaren hitzetan, "Excel liburuaren lehenengo orrian kalkulatu da zer botere kalorifikoa izango duen errauste plantak. Izan ere, erraustegiaren eta balorizazio energetikoko planta baten arteko ezberdintasuna, botere kalorifikoa kopurua da. Formula bat aplikatzen da, eta horren arabera, planta horrek lortzen duen energia kopuruaren arabera izendatzen da planta bat 'erraustegi' edo 'balorizazio energetikokoa'. Exceleko lehen orrian, formula hori aplikatuta, emaitzak ematen zuen balorizazio energetikoko planta bat zela orduko proiektua. Baina Excel liburu horretako bigarren orrian, formula horri gehitzen zioten plantak berak zuen

energia kontsumoa, martxan aritzeko. Eta orduan, jada, erraustegia zen".

Proiektu hori erraustegia edo balorizazio energetikoko planta izatea ez da energiari dagokion arazoa soilik. Intxaurrandietak azaldu zuenez, "erraustegia egiteko Europak ez du dirurik ematen eta Eusko Jaurlaritzak ez zuen baimenik eman: Eusko Jaurlaritzaren baimena balorizazio energetikoko planta bat egiteko emandakoa zen. Jakitun ziren horretaz, erraustegi bat izango zela, ez zuela balorizazio energetikorik lortuko, eta aurrera egin zuten".

Kontu ilunak GHKn artikulu sorta irakurgai duzu, argia.eus/blogak/estitxu-eizagirre helbidean.

Erraustegia, adjudikatuta

Zubietako erraustegia adjudikatu du Gipuzkoako Aldundiak. EAeko Auzitegi Gorenak GuraSOSen helegitea atzera bota eta biharamunean izenpetu du Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Aldundiko Ingurumen diputatuak erraustegiaren adjudikazioa. Lanak hilabete eta erdi barru inguru hasiko direla iragarri dute.

Bestalde, sute handia piztu zen otsailaren 2 gauean Virginia estatuan dagoen erraustegi batean, AEBetan. Erraustu behar zituzten hondakinek hartu zuten su eta zabaldu egin ziren garrak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Bizkaiko oligarkiaren erretratua



Juan Mari Arregi

Egin izan banu Negurin finkaturiko Bizkaiko oligarkiaren argazki bat 60ko hamarkadan, demagogoa eta ahoberoa naizela esango zidaten. Hala ere, badago oligarkia hura osatzen zuten bostehun familiatik kide bat, 12 orrialdetan egiazko erretratua eskaini duena. Pedro Ibarra *Memoria del antifranquismo en el País Vasco* idatzi du. Liburu garrantzitsua da bere eta bere bikote-kide Carmen Oriolen testigantza eskaintzen duelako –biak oligarkiatik zetozen–, haien konpromiso militante eta antifrankista azalduz; baina baita ekarpena egiten duelako ere, Neguriko elite ekonomiko, politiko eta soziala ezagutzeko bidean. Gaietik daudela eta pribilegiatuak direla uste dutenen jokabide eta kode moralak, nazional-katolizismoaren eragina, euren interes ekonomikoak babesteko frankismoaren barruan hartutako jarrera politikoa, kulturarekiko mespretxua... Horrek guztiak jendarte baten erretratua osatzen du. Pedrok eta Carmenek hortik ateratzeko ausardia izan zuten kontrako norabiderantz, langile klasearen ondora.

Oligarkia gordinenetik atera ziren, bai. "Bizkaian agintzen zuten familia urriek –dio Ibarra– botere politiko eta ekonomikoa zuten. Industria handian agintzen zuten zuzenean (elektrikak, siderurgia, industria kimikoa, meatzaritza), baita banku handietan ere. Eta beharka agintzen zuten, zenbaitetan bitartekari gabe, politikan eta diktadura frankistan. Existitzen ziren hedabide gutxietan ere agintzen zuten. Hau da, euren zen dirua, boterea eta ideologia menderatzailea".

Eta oligarkia hori, ez dezagun ahaztu –gehituko nuke nik–, beste forma bat hartuta ere bizirik eta jardunean dabil, izan Negurin edo beste toki "lasaiago" batzuetan jesarrita.



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Iñaki Garcia Koch Itoizko solidarioari omenaldia

ARTZIBAR. Urtea hasi berritan hil da, 53 urterekin, ibilbide luzeko ekintzailea, eta azken agurra egingo diote Artzibarren eta Agoitzen. Okupazio eta desobedientzia mugimenduetan ibilia zen, tartean Iruñeko Euskal Jai ezagunaren inguruko mugimenduan. Duela bi hamarkada, legez kontra eraikitzen ari ziren Itoizko urtegiaren kontra ekintza zuzenarekin erantzutea erabaki zuen beste hainbat lagunekin batera. Gogotik ordainarazi zioten hautu hori, kartzela eta sasia ezagutu baitzituen.

AHT: pobreei kendu, aberatsei eman?

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Urteak dira bateko obrak eta besteko proiektuak hasi edo onartu zirela, baina abiadura handiko trenak zeresana ematen jarraitzen du euskal lurraldeetan. *Euskal Y* deiturikoak ekarriko dituen kalte sozialak jakin ditugu berriki Ekopol taldearen eskutik; Nafarroan, aldiz, proiektu antzu bati segida eman nahi dio Foru Gobernuak, "korridore" hitza erabilita.

Kiebra "denbora kontua" da

Ekopolen txostenaren emaitza nagusietako bat da: ezinezkoa da AHT-tik etekinak lortzea laguntza publikorik gabe, eta kiebra "denbora kontua" izango da. Bestetik, LAB eta ELAren ustez "zerga bidez, kolektibo pobreen baliabideak aberatsen eskura" jartzen ditu proiektuak.

Nafarroan, zehazteke

Nafarroako lehendakariorde Manu Ayerdiri "konpromisoa" agertu dio De la Serna ministroak lurraldea AHTrekin lotuko duen "korridorearekiko", baina ez dute zehaztu 3. errail batez edo bestela izango ote den. Bitartean, Tafallan tren arruntaren geltoki gabe geratzeko beldur dira.

ZINE INDUSTRIA



3.893.739

euroko diru-laguntzak izan zituen euskal zine industriak 2014an. Aldiz, 4.494.554 euro itzuli zituen zergetan.

60

milioi euro baino gehiagoko inpaktu globala eragiten du sektoreak, 27 milioi euro inguruko balio erantsia eta 800 pertsonentzako enplegua.



EREMU MISTOKOAK IZAN NAHI DUTE

Nafarroako hamabi herrik eremu ez-euskaldunetik eremu mistora pasa nahi dute; Lizarraldeko, Izarbe Ibarreko eta Erdialdeko herriak dira. Mozioak onartu dituzte Parlamentuari eta Foru Gobernuari eskatuz eskaera sozialari erantzuna emateko.



AZPILLAGA HIL DA

Jon Aspillaga bertsolaria hil da. Frankismo garaian ezagun egin zen, Jon Lopategirekin batera Euskal Herri osoan plazaz plaza ibilita. Bizkaiko Bertsolari Txapelkun izan zen 1961ean eta Euskal Herriko finalera lautan iritsi zen.



ALTSASUREKIN ELKARTASUNA

Altsasuko liskarra terrorismotzat hartzea salatuko dute 214 abokatuk eta irakasleek. Fiskaltzaren eta Entzutegi Nazionalako Instrukzio Epaitegi Zentralaren jarduna kritikatu, eta kasua Nafarroako epaile eta auzitegi dagokiela defendatu dute.

Boli Kostako *mikrobio* gazteak ez dira beldur ez hiltzeko, ez erailtzeko



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Kaleetan ze-suma dabilzan gazte noragabeak, gerra zibila amaituta egokitu ez diren gudariak, jauntxo militarrek xaxatutako gaztetxo heldu gabeak... Nor eta zer dira Boli Kostako Abidjan hiriburuan izua zabaltzen duten 8-25 urte arteko mutikook? Erdialdeko Amerikak *marak* eta Brasilek faveletako bandak dauzkan moduan, Boli Kostako *mikrobio*ak aipatzen dira Mendebaldeko Afrikako hiri handietan.

Boli Kosta esatea da, europar gehienentzat, zenbait kaferen jatorria eta, gure inguruan gehiagotan, txokolate perfumatuarena. Kafe eta kakao horietan oinarrituta, Mendebaleko Afrikako motor ekonomikoa izan zen 1960 eta 70eko hamarkadetan. Baina 80koan Boli Kosta murgildu zen krisi ekonomiko sakon batean, zeinak berekin ekarri baitzuen nahasmendu politiko eta sozialaren aroa.

XIX. mendetik Frantziaren kolonia izan ostean, 1960an lortu zuen independentzia eta geroztik Félix Houphouët-Boigny eduki zuen presidente 1993 arte, Mendebaldearekin eta bereziki Frantziarekin atxikiz harreman estua, esan nahi baita menpekotasuna. Geroztik Boli Kostak sufritu ditu estatu kolpe bat 1999an eta bi gerra zibil hein batean erlijio gatazken gainean oinarrituak. 2002 eta 2007 artekoak 3.000 heriotza baino gehiago eragin zituen. Bigarrenean, 2010 eta 2011 artekoan hauteskundeak irabazi nahi zituzten Laurent Gbagboren eta Alassane Ouattararen aldekoak borrokatu ziren, guxtienez 3.000 jende gehiago hilaz.

Horregatik esan izan du Hamed Bakayoko Abidjaneko "*microbe*" jendeak funtsean direla gerrak traumatizatutako haurrak. Bakayoko ministro da hauteskundeak eta gerra irabazi zituen Ouattararen gobernuan. Aldiz, *Le Monde* egunkariak 2016ko udaberrian *mikrobio*en beste azalpen bat eman zuen: "Kalean zer eginik gabe bizi diren gaztetxoek gero eta bortizkeria handiagoa darabilte

gainerako biztanleen kontra. Eta agintariek ez diote arazoari heldu nahi". Hots, agintariek babesten dituztela.

*Le Monde Diplomatique*ren blogetan Sabine Cessouk idatzi du "*Mikrobio* bolikostarrak, krisiaren sekuela" interesgarria. "Zein dira *mikrobio*ok? Gizartearen fenomeno hau azaldu da 2010-2011ko hauteskunde krisi bortitzaren ostean eta haren sekuela ikusgarrienetakoa da. Mutiko gazteok, 8 eta 25 urte arteko gaizkileak, 15 eta 20 kide arteko bandetan elkartuta dabilta Abidjan hiriburuko auzuneetako kaleetan jendei lapurretak egiten labanak, aizkorak, matxeteak eta makilak erabiliz. 'Bide moztaille' ere deituak, izututa dauzkate Abobo, Adjamé, Yopougon, Anyama eta Attécobé kartielak".

Lapurretak, bortxaketak, klase gutietako eraso eta jipoiak... prentsez gain sare sozialak ere berotzen dira sarritan *mikrobio*en desmasiekin. Zirrara handia eragin zuen Claude Larissa Abogny 23 urteko ikaslearen heriotzak. Etxerako bidean, goizaldean, telefono mugikorra ostu zitoten eta ondoren matxete kolpez hil, ustez Yopougon auzoko gaztekoek.

Joan den maiatzean polizia sarekada zabala antolatu zuen auzuneok kontrolatu eta gazte susmagarriak harrapatzeko. Hiru hilabetetan 11.500 arrestatu zituzten, horietatik 250 auziperatzeko. Ehunka arma kendu zizkieten, tartean zenbait pistola eta *kalaxnikov*, 2.950 tona *cannabis* kalamu konfiskatu eta 166 erre-toki zerratu.



Fenomenoak halako zabalera hartu du, ezen saltsan sartu baita *herritarren justizia*, lintxamendua alegia, *mikrobio*en zenbait *xe*fa hiltzeraino, sonatuenak 2015ean burua moztu zioten Mamadou Traore Zama eta 2016ko martxoan matxetez hil eta zintzurretik zilborreraino ireki zutena, Diaby Mamadou "*Pythagore*", 18 urte besterik ez.

'Gaztetxoek boterea' karraketan

Zenbait kazetariren kontabilitatean, 2016ko udaberrian bederatz *mikrobio* hil zituzten herritarrez osatutako patruilek, batzuen erasoen eta besteen mendekuen gurgil zoroan. Eta ez du baretzeko itxurarik gaztetxo banden eta patruilen arteko gerrak, Abobo auzuneko herritar ezagun batek esan duenez: "Ezin gara gobernuak arazoa noiz konponduko zain egon. Bost urte baino gehiagoz sufritu dute familiek, denek dakite. Gobernua baldin bada *mikrobio*en konplize, hor konpon. Gure mailan, geuk egingo dugu horiek suntsitzeko lana". Nekez hilko dituzte denak.

Kane Rodrigue Fahiraman soziologoak kontatu duenez, mundu osoko hiri handietan ikusten dira horrelako bandak: "Jendeari bizia kentzea da iritzi publikoak *mikrobio* bataiatu dituen hauen ezaugarrietako bat. Izena hartuta dago *La cidade de Deus* (Jainkoaren hiria) film brasildarrean ageri diren gang-etako batenetik. *Mikrobio* metafora klinikoak irudikatzen du izaki bizidunon txikitetasuna, begiz ikusi ezin diren arren borti-



Moussa du izena argazkiko mutikoak eta ez ditu hamasei urte izango. On Voit Tout hedabideak dioenez, Abidjango Selmer auzoko komertzio batean hartu du preso komertzio bateko nagusiak. Beste kide batekin batera dendariari mehatxuka atea ireki arazi diote, baina honek lortu du Moussa harrapatu, eskuak lotu eta lurreko zulo horretan geldiaraztea, auzotarrei laguntza eskatzen zien bitartean. Beste gaztetxoak ihes egin du.

tzak eta gizartea den organismoarentzako kaltegarriak direlakoan”.

Boli Kostako gizarteak klase guztietako nekeak sufritzen ditu azken hiru hamarkadotan, 1990ean lehengaien prezioak –nagusiki kakaoarena– hondoratu zirenez geroztik. Estatuaren finantzak desorekaturik, Abidjaneko gobernuak Nazioarteko Diru Funtsera eta Munduko Bankura jo zuen kreditu esker, eta hauek ezarritako formula neoliberalak ondorengo urteetan gauzak gaiztotzea baizik ez du ekarri.

Francis Akinde soziologoak ekoiztutako *Espoir d'un emploi* (Lanpostu baten itxaropena) dokumentalean diotenez, Bolikostan –2014ko datuetan–, 23 milioi biztanleen artean 2014an ofizialki 430.000 daude langabezian. Baina ez ekibokatu: “enplegudun” jotzen dira beltzean lanean ari direnak ere, hau da,

behargin guztien %91! Beraz, langile kontratudun urriak ez dira %19 baizik. Langabezia masiboa da. “Gazteria da –dio Akindek– sekulako arma horren energia fisikoa bezala intelektuala mobilizatzen dakiena gizartearentzako. Gazteria arrisku iturri bilakatzen da bere haurtzaroa luzatu eta helduen munduan sartzeko adina berandutzen zaionean”.

Horri gehitu behar zaizkio azken urteotako bi gerra zibilak. Gbagboren bezala Ouattararen tropek erabili zituzten haur eta gaztetxoak gerran, horrek ekarri dizkien trauma psikologikoekin. Beren eredu ziren helduak ikusi dituzte beste helduak hiltzen, sarritan modu ikaragarrian. Eta beraiek ere, gaztetxo edo haur, xaxatu dituzte gauza bera egitera. Armak erabiltzen ikasi dute, izugarrikeriari beldurra galdu eta arerio

edo etsai izatekotan parean jarritako edozein hiltzen ohitu.

Kane Rodriguek bandetan dabilzan gazteon jokabidean ikusten du gizarteak kontutan hartu ditzan beharra. Po-breziak, aginte publikoen utzikeriak, familien desegituraketak, droga trafikoak eta, azken finean gerrak ere bai, ekarri dute auzuneetako “gaztetxoek botere” horren sorrera, karrikan gizarteratzerak behartu dituztelako. “Etorkizunerako itxaropenik gabe hazi direnez, bortizkeriak zentzu bat ematen die gazteoi. Ekintza bortitzekin anonimotasunetik irtetzen dira, hedabideak haietaz mintzo, jende helduak aginte bat aitortzen die gizartean. Aintzat hartuak izan nahi hori mamitzen dute ekintza bortitzetan: biktimaren gorputza betirako markatuta uztean zauriz, orbaintze ikusgarriak uzten dituzte marketan”. ■

zuri begira

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Mirentxu Loyarte, zinegilea

“Ardoa eta makina-erreminta ekoizten dituzte ba Eusko Labelarekin, zinema zergatik ez?”

1978an, *Irrintzi* film laburra egin zuen Mirentxu Loyartek. Euskal Herriko film aitzindaria izaki, gu guztion iruditegian behar luke; hala ere, iazko Zinemaldian ezagutu genuen askok, ia 40 urte geroago, Iratxe Fresnedaren *Irrintziaren oihartzunak* dokumentalari esker. Harridura, lilura, ezin sinetsia. Elkarrizketa eta memoria eten ez daitezen bildu ginen harekin.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nolatan hasi zinen zineman?

Betidanik idatzi izan dut, eta marrazkiak egin, izugarri gustatzen zaidalako. Orduan, horretan jarraitu nuen eta, gaztetan, eleberri ez oso luze bat idatzi nuen. Norabait bidaltzekotan nintzela, ingurukoei pasa nien, irakur zezaten, eta orduan nirekin zebilenak, gerora nirekin ibiltzen jarraitu duenak egiatan, esan zidan hura ez zela eleberri bat, berari zinema iruditzen zitzaioala.

Zergatik izan zen hain erabakigarria pasadizo hura?


Horixe da kontua. Zergatik eteten da ibilbide bat, eta beste bat abiatzen? Bada nik, eleberria idazten ari nintzela, mila buelta eman nizkion isiltasunaren gaiari, eta asko izorratzen ninduen: aldiro, esaten nuenean pertsonaiak isilik geratu zirela, hitz mordo bat idatzi behar nuen isiltasuna ikusarazteko. Gai hori tik baten modukoa zen, izugarri

gogaitzen ninduen. Orduan, zinemarena esan zidaten, eta argi ikusi nuen.

Beraz, hori erabakita, zein izan zen hurrengo urratsa?

Garai hartan, Paris zen zinemaren gune nagusia; gainera, abertzaletasuna oso indartsu zegoen, batez ere zenbait ingurutan, eta, zera, Madrilera joatea, bada... Egia da, Parisek ere badauka berea, baina niri Parisko historiak ez zidan ez





Mirentxu Loyarte

1938 , Iruñea

Zinema-ikasketak egin zituen Parisko CICF Zinema Independentearen Frantziako Kontserbatorioan. 1978an zuzendu zuen lehenengo film laburra, *Irrintzi*, eta Espainiako Zinematografiaren Kalitatezko Sari Berezia jaso horri esker. 1981ean, euskal emakumeari buruzko dokumental bat egin zuen, Ikuska sailaren barruan. Arrazoi politikoak tarteko, 80ko hamarkadan Venezuelara joan zen, erbestera. Euskal Herrira itzuliz geroztik kulturaren alorrean aritu da. Iaz, haren ibilbideari buruzko dokumentala aurkeztu zuen Iratxe Fresneda zuzendariak: *Irrintziaren oihartzunak*.

hain zuzenean eragin, bada hara joatea pentsatu nuen. Lehenengo urtean hizkuntza lantzen ibili nintzen, jada zerbait ikasia nuen batxilergoan, baina hobetu beharra neukan. IVEC zinema-institutu ofizialaz aparte hainbat eskola zeuden, eta nik horietako batean ikasi nituen zinema eta zinema-zuzendaritza, Zinema Independentearen Frantziako Kontserbatorioan. Kurioski, han ere neu nintzen neska bakarra.

Zer-nolako bizipena izan zen hura?

Itzela. Une horretan nire premia nagusia zen jakitea ea zertan ari nintzen, noraezean joateari uztea. Izan ere, frankismoa bizi izan ez duenarentzat zaila da ulertzen, zeren azkenengo garaiak ez dirudi hain bortitza, hain gogorra; badi-rudi ez zela ezer gertatzen. Baina huraxe zen arazoa, ez zela ezertxo ere gertatzen, hau da, zuk ezin zenezakeen jakin zer ari ziren egiten eta ikusten beste

toki batzuetan, ez zegoen konparatzeko eredurik. Ezin zenituen zure ideiak bestelako ideia batzuekin erkatu, eta konparatzeko punturik ez daukazunean ez dakizu non zauden, ez eta zenbat falta zaizun ere.

Sakristia hutsa zen hau. Pinochet aipatzen dutenean beti pentsatzen dut baietz, Franco bezain gordina izan zela hasieran, hain zuzen matxinada guztietan lehen olatua izaten baita latzena,

baina Pinochetek hamaika urte egin zituen boterean, eta hemen, berriz, bi belaunaldi oso hazi ziren frankismoaren pean, sakristia erabateko honetan.

Eta Parisen, berriz, zer topatu zenuen?

60ko hamarkadaren amaieran egon nintzen han, eta sekulako garaia izan zen. 68ko maiatza baino zenbait hilabete lehenago iritsi nintzen eta zur eta lur geratu nintzen. Komunikabideak, adibidez: hantxe ikusten zenituen titular harrigarriak; gu, ordea, ohituta geunden denak izan zezan halako patina bat, dena estaltzen zuena eta denari ematen ziona kolore eta ñabardura berbera.

Zinema-eskola bera oso ondo etorri zitzaidan kontaktuak egiteko, eta Zinemateka osorik irentsi nuen, betekada hartu arte. Sekulako zikloak egiten zizuten han, eta denetik ikusi nuen.

Bereziki gogoan al duzu Zinematekan ikusitako zerbait?

Dreyerren zale erabatekoa bihurtu nintzen. Ez nuen aurretik ezagutzen, baina film bat ikusi nuen eta liluratu egin ninduen. Haren film guztiak ikusi nituen gero, eta gogoan dut txartel-saltzaileak azkenerako ezagutu egiten ninduela eta esan zidala, zur eta lur: "Ez al zaizu benetan Dreyer gustatuko?"

Batzuetan zaila da lilura hori azaltzen, baina har dezagun, adibidez, Dreyerren *Ordet* filma. Eszenaratzea erabat oinarritzkoa da, mugimendua ia ezin nabaritzekoa, eta hala ere, zer-nolako jokoak egiten duen argiarekin! Hildakoa ohean dago, eta bat-batean, hara hor berpiztearen miraria. Nola da posible nik hori sinestea? Eta sinetsi nuen, bai. Izugarria iruditu zitzaidan. Noski, beste batzuk gauza bera erakusten dizute beste modu batean eta ez duzu inondik ere sinesten, hortxe dago gakoa.

Paristik itzuli zinenean zer-nolako giroarekin egin zenuen topo?

Gogo biziz itzuli nintzen hona, mundua jateko prest. Horrek erakusten du baikoarra naizela bizitzaren aurrean, besterik ez. Ez dut urtea oroitzen, baina badakit *Amalur* egin zutela jada. Niri asko gustatu zitzaidan eta [Nestor] Basterretxearekin jarri nintzen harremanetan, eta [Fernando] Larraquert ezagutu nuen gero. Ondo moldatu ginen hasieratik.

Basterretxeak esan zidan gidoi batekin ari zela, eta ea irakurriko nuen.

» "Iruditzen zait gaur egungo belaunaldia nahiko *light* dela, oso langilea, hori bai, eta egoera ez da erraza. Akaso aurreko belaunaldiarena da errua, akaso gutxi gorabeherako askatasun horretan ipini zuten indar guztia"

» "Orain jakin dut Kimuak saileko lanak oparitzen ari direla, bataioetan jaurtitzen diren gozokiak nola"

Teodosio de Goñiri buruzko lan bat zen. Nire ikuspuntua azaldu nion, zer nuen gustuko eta zer ez, eta asko gustatu zitzaion esandakoa. Saiatu zen filma aurrera eramaten, baina ez zuen finantzazio-iturririk lortu. Eta gero saiatu ginen beste film labur batzuk egiten, baina horretarako ere ez genuen dirurik lortu, beste hainbat proiektuekin gertatu den moduan.

Noiz eta nolatan egin zenuen *Irrintzi*?

Venezuelan erbesteratu behar izan nintzen, eta bueltakoan egin nuen filma. Proiektu guztiak sortzen diren moduan sortu zen hura ere, modu zertxobait gorabeheratsuan. Niri gidoi bat eskatu zidaten. Apur bat abstraktua zenez, eskatu zidaten zuzendaritzarako aukeratua zutenaren laguntzailea izan nendila, eta besterik ez. Guztiok egin ditugu lanak gure izenik agertu gabe, inoren izenik agertzen ez denean lan horretan, baina neuk egin filma eta gero beste batek sinatu? Inondik ere ez. Handik 20 egunera, zuzendari izango zenak esan zuen ez zuela filma egingo nire laguntzarik gabe, eta nik zuzendu nuen azkenean.

Zer moduzko prozesua izan zen?

Argi neukan zer erakutsi nahi nuen: emozio hori, justu garrasi egin aurre-

koa, edo manifestazio batean zaudeneko eta harri bat hartzen duzuneko, eta une batez gelditzen, jakin gabe ea egin behar zenukeen ala ez. Apur bat desesperazioz ateratzen zareneko emozio hori. Ez nuen manifestaziorik erakutsi nahi, ez, nahi nuen zerbait abstraktua, jendeak beste emozio hori senti zezala.

Jakina, eskuartean neukan lehen gauza zenez, prozesu gogorra izan zen. Hasiara batean oso seguru zaude eta gero zalantzaz guztiz beteta: erratu ote zaren, urrunegi joan ote zaren... Batez ere halako gauza ez-errealistekin: asko gustatzen zaizkit halako poemak-eta, baina gero etereoegiak izan daitezke. Tuntu handiz ibili nintzen. Zalantzaz beteta egon nintzen, aurrera eta atzera eginez, hau eta beste hau, behin eta berriro berrikusiz eta landuz.

Harrera beroa izan zuen, hasieran behintzat.

Bai, aurreko batean horixe esan zidan kazetari batek, ikusgarria izan zela urte hartan Zinemiran piztutako jakin-mina. Gero etorri zena, hala ere, Zinemaldiko garai hartako zuzendariak azalduko lizuke nik baino hobeto. Garai hartako gobernadore zibila joan omen zen Zinemaldira, esanez atxilo eraman behar ninduela, *Irrintzi* propaganda hutsa zelako. Ni, bien bitartean, hirian paseatzen nenbilen. Kontua da zuzendariak konbentzitu omen zuela gobernadorea ez nezan atxilotu: Franco hil berrian, Europako komunikabideak begira-begira zeudela, Estatu espainiarrak nola erreakzionatuko, lehen laprastada noiz egingo. Ez ninduten eraman, eta hala ere, Zinemaldiaren ondoren, hamaika giltzarraparekin lurperatu zuten filma, eta erabat ahaztu zen.

Min handia egin zizun horrek?

Pentsa! Zerbait egiten duzunean nahi duzu jendeak ikustea; gainera, une hartan huraxe zen bidea: film laburrak egin eta itu-itan jotzen saiatu. Huraxe zen zure aurkezpena gero lanean jarraitzeko, proiektu gehiago lortzeko eta abar.

Garaitsu horretan, *Punto y hora* aldizkarian esan zenuen Euskal Herriko kulturak behar-beharrezkoa zuela zinema, eta hala ere, baztertuta geneukala. Zergatik iruditzen zaizu hain garrantzitsua zinema?



Nola lagako dugu bazter batean irudia? Ezinbestekoa da. Gainera, iruditzen zait ondo moldatzen garela horrekin, munduaren gure ikuspegiarekin nahiko bat datorrela. Zinema, azken batean, hori da, munduari begiratzeko modu bat. Esate baterako, gogoan dut *Loreak*. Film bat da eta gustatu dakizuke ala ez, baina badaude film horretan une batzuk non jolas geometriko moduko bat den: argia, kameraren mugimendua... Normalean, film bat ikusi ostean pusketa batekin baino ez gara oroitzen, eta zuzendariak lortzen badu pusketa batek irauten dezan, eta gainerakoak ez dezan ezabatu, uste duena baino gehiago lortu du.

Hainbat urte pasa dira hori esan zenuenetik. Bazterrean daukagu oraindik?

Oso garai ezberdinean gaude, noski, bai-

na nire iritziz azpiegitura falta da. Ez dut ulertzen nola saltzen dituzten makina-erreminta edo ardoak edo dena delakoa Eusko Labelaren etiketarekin, eta nolatan ezin daitekeen hori berori egin beste hainbat gauzarekin, hala nola zinemarekin. Ez du sekulako azpiegitura izan behar, baina bai serioa, se-ri-o-a: hiru urte inguru beharko dituzu merkaturia topatzeko eta abar, baina behin abiatuta, ondo bideratu daiteke.

Orain jakin dut Kimuak saileko lanak oparitzen ari direla, bataioetan jaurtitzen diren gozokiak nola. Lanak gutxiesteko modu bat da hori: salmentarik txarrena, horixe da opari bat. Oparitu diezaiokezu adiskide bati edo beste norbaiti, ezagut dezan, baina kito. Makina-erreminta saldu behar dutenean badakite zer egin, ezta? Ez dute debalde oparitzen.

Ikuska sailaren barruan ere egin zenuen lan bat, euskal emakumeari buruzkoa.

Antton Ezeizak oso ondo antolatu zuen Ikuska sailarena: ekipamendu txikia baina kalitatezkoa. Galdetu zidan ea egingo nukeen zerbait, eta ea zer egingo nukeen. Nik bi gai nerabiltzan buruan: bata, niretzat interesgarriena, jaiarena zen, jaia edo festa kontzeptu gisa, ikuspegi soziologiko batetik, baina oso zaila iruditzen zitzaidan, eta beste aukerari heldu nion, euskal emakumearen gaiari.

Urte asko pasa dira Euskal Herriko emakumeen egoerari buruzko atal hori grabatuz geroztik. Asko aldatu al da egoera?

Zuk ikusi duzu Ikuskako atal hori? Egia esan, nahiago nuke zeuk esatea ea zer iruditzen zaizun.



Azken hitza: Iratxe Fresnedarekin berriketan

Elkarrizketa egin bitartean, alboan izan dugu Iratxe Fresneda zuzendaria. "Dokumentala egiteko, denbora mordo bat eman genuen biok solasean, eztarria ahitu arte". Solasaldi horien pusketak dira dokumentalaren oinarrietako bat, eta hala ere "Mirentxuren aipu pila bat geratu dira kanpoan, orduak!".

Gauza batzuk gaur-gaurkoak direla iruditzen zait. Atal horretan agertzen den emakume helduetako batek aipatzen duen moduan, badirudi esparru askotan askeago garela, baina, gero, benetan, ez ote gauden beti bezain lotuta...

Horixe bada. Analisi zehatzak egin behar ditugu, eta ikusi badagoela alde-rik, ez dela gauza bera funtzionatzeko askatasun atsegin baten jabe izatea ala benetan zure askatasuna ondo sustrai-tua egotea. Egin dugun bide hau lasai asko deusezta dezakete lau kolpetan, krisia dela eta bestea dela, zeren, noski, badakite ez duzula haurra kako batean zintzilik utziko, beraz zaintzara itzuliko zara.

Eskubidea daukazula? Bai, jakina, bai-na zenbait garaitan horrek ez du pipe-rrik balio. Iruditzen zait gaur egungo be-launaldia nahiko *light* dela, oso langilea, hori bai, eta egoera ez da erraza. Akaso aurreko belaunaldiarena da errua, aka-

so gutxi gorabeherako askatasun horretan ipini zuten indar guztia, baina oina-rriak sendotu behar dira, bestela bihar kenduko dizute atzo emandakoa.

Zure ibilbideari buruzko dokumentala estreintatu zen iaz: *Irrintziaren oihartzunak*. Zer-nolako bizipena izan da?

Bada, nik Iratxe ez nuen ezagutzen, eta berak ere ez ninduen ezagutzen, neure filmak baino ez. Hala ere, deitu zidanean ez zidan neure bizitzaz galdetu; azken batean, nire bizitza jende guztiaren modukoa da, aurrera eta atzera doa, batzuetan lortzen dituzu gauzak, eta beste batzuetan ihes egiten dizute. Iratxek, ordea, *Irrintzi* aipatu zidan: aurkitu egin zuela eta iruditzen zitzaiola hori argi-tara atera behar zela, ez zuela ulertzen nola zegoen ahaztuta, nola ez zuen izan horren berririk lehenago. Noski, arreta piztu zidan, hizketan hasi ginen, eta ha-laxe etorri da dena. ■

Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA
MAKILA

Opari berezietarako
Pertsonalizatuak
Prezio aukera desberdinak

ARGIA

www.argia.eus/denda/makilak
denda@argia.eus | 943 371 545

Mandarinak



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Lagun batekin, Martarekin, Greziara joan zen oporretan. Sare sozialen bidez izan ginen euren pozaren lekuko: argazkiak, txantxak, hitz samurrak... Norbaitek galdetu zidan ea elkarrekin dauden. Ez, ez dira bikote, ezta maitaleak ere. Lagunak dira.

“Peru munduko gizonik ederrena da”, esan zidan Joanesez. Peru bere bikotekide ohia da. Kale berberean bizi dira eta oporrak elkarrekin pasatzen dituzte. Herriko jendea txutxu-mutxuka hasi zen: “Berriro elkarrekin ote daude?”.

Carmenek eta Rosak 40 urte inguru dituzte. Lagun minak eta pisukideak dira. Rosak bikotekidea dauka, baina ez du berarekin bizitzera joateko asmorik. Ustekabekoren bat daukanean, triste edo gaixorik dagoenean, Carmenengana jotzeko joera du askotan.

Pentsaera monogamoa hain dago errotuta gure baitan, ezen eta bikote eremutik at garatzen diren harreman afektibo estuek harridura sortzen duten sarri askotan. Maitasun mota nagusia amodio erromantikoa dela sinetsarazi digute, gure beharrak asetzen dituena. Gure bikotekideak izan behar du gure amorante bakarra, gure pisukide egokiena, gure bidelaguna, gure lagun mina. Hori hala ez bada, agian ez gaude horren maiteminduta. Agian, bera ez da gure laranja erdia. Mari Luz Estebanek “maitasun pentsamendu” hitzekin definitu du diskurtso hori.

Feminismoan, amodio erromantikoa erromantikoa kontrako borrokan dihardugu, eta horrek monogamia ere zalantzan jartzera eramango gaitu. Brigitte Vasallok arrazoi mordo eman digu pertsona bat baino gehiago maitatzeko eta desiratzeko dugun gaitasuna aldarrikatu dezagun, baina besteena errespetatu dezagun ere. Teoria ondo ikasi dugu, baina praktikara eramaterakoan zer gertatu da? Monogamian hezi garenok ezin ditugula eskemak irauli

Feminismoan, amodio erromantikoa kontrako borrokan dihardugu, eta horrek monogamia ere zalantzan jartzera eramango gaitu. Brigitte Vasallok arrazoi mordo eman digu pertsona bat baino gehiago maitatzeko eta desiratzeko dugun gaitasuna aldarrikatu dezagun, baina besteena errespetatu dezagun ere. Teoria ondo ikasi dugu, baina praktikara eramaterakoan zer gertatu da?

egun batetik bestera. Bikotekide bat baino gehiago izaten edo beste pertsonekin sekretu barik oheratzen saiatu garenean, porrot egin dugu eta errua polimaitasunaren modari egotzi diogu. Desengainatuak sentitu gara eta hobe dela betiko eredura bueltatzea pentsatu dugu: betiko legez adarrak jartzeak min gutxiago ematen du. Horri buruz ere artikulu ugari idatzi izan da. Esaterako, “poliamodio feministaren utopia” sine-tsi izanaren arriskuez ari izan da Coral Herrera Gómez.

Bikote ereduaren arloan ere eskema diktomikoak jarraitzeko joera daukagu: monogamia ala polimaitasuna? Badi-rudi bi bide paralelo direla eta batetik bestera joateko bat-bateko salto handia eman behar dugula. Errepresioan eta kontrolean oinarritutako eredutik gator. Esan digutenez, beste pertsonekin fantasiak edukiz gero, horiek ere adarrak dira; edota masturbatzen bagara, gure bikotekideak asetzen ez gaituen seinale da. Pentsaera monogamoa, sexu autonomiaren ikur oro mehatxu bezala sumatzen dugu eta jelskortasun eza susmagarria iruditzen zaigu.

Gai honen inguruan, Queer Avengers-en bideo batean entzun dut ez garelako laranja erdiak edo osoak, mandarinak baizik. Bikotekide mandarinaren atal bat da, baina gehiago ditugu: lagunak, bikotekide ohiak, pisukideak, familia, zaletasunak... Atal bat kenduz gero, mundua ez da bukatzen, besteez goza dezakegu.

Ez dago adimen emozionalaren utopiara bat-batean eramango gaituen lasterbiderik. Polimaitasunarekin gustura egotearen auto-exijentzia bortitzaren eta monogamian geratzearen etsipenaren artean, badago beste bide luze bat, luzeagoa baina lasaiagoa: denon artean bestelako kultura afektibo bat ehuntzea, harreman aniztasunean eta zaintzetan oinarritua. ■

Kuku

Astelehenean, 21 hilabeteko alaba zaintzen hasi naiz etxean. Erabaki dugu hobe dela, oraingoz eta ahal dugun bitartean, eskolara ez eramatea. Ondo aztertu ostean, adin horrekin, etxean, behar duen arreta-ratioa eskaintzea pentsatu dugu dela onena berarentzat: haur bat, heldu bat.

Zoriontasuna. “Nire seme-alabak zoriontsu izatea nahi dut” esaldia gorroto zuela, baina nolabait, hori desio zuela aitortu zigun kide duela gutxi.

Psikologo askoren esanetan, pertsonak sano hazteko euren erreferentziazko zaintzaileekiko lotura enpatiko eta sendoa behar dute (Puertas, P.). Zaintzaileok umeari honek dituen sententzio lauso, ilun eta primarioak apurka-apurka deszifratzen lagunduta, sentimendu identifikagarri bihurtuko zaizkio. Izena jarri ahal izango die. Hortxe hasten omen gara gure identitatea marrazten. Modu kontzientean sentitzerakoan, gure nortasun-enborra sendoagoa egiten doa. Prozesu hori umearen hasierako urteetan gertatzen da nagusiki (Cristobal, R.). Bide hori ondo eginez gero, pertsona horiek beren barruarekin eta inguruko errealitatearekin konexioan eta orekan bizi diren izakiak izango dira. Bizitzaren gertakizun gazi-gozoei



Andoni Mujika

IRAKASLEA
@mujikaandoni

Psikologo askoren esanetan, pertsonak sano hazteko euren erreferentziazko zaintzaileekiko lotura enpatiko eta sendoa behar dute

aurre egiteko “pertsona ahaldunduak” (Puertas, P.). Eta beste alde batetik, eskeleto psikiko hori edukita, jasotzen dugun afektibitatea eta maitasuna bizitza osoan zehar bitaminak dira arimarentzat.

Ikerketa bat. Aurreko planteamenduaren alderdi bat baieztatzen duen ikerketa iritsi zait egunotan esku artera. Eta egia esan, zur eta lur utzi nau; bai ondorioengatik, baita ikerketaren ezaugarriengatik ere. Harvard-en 75 urte daramate, eten barik, zoriontasunaren gaia aztertzen. Ikerketa-galdera da ea osasuntsu eta zoriontsu zerk egiten gaituen. Robert Waldinger psikiatrak zuzentzen du azterketa lan luze hau. Ondorio nagusia hauexa izan da: harreman onek zoriontsuago eta osasuntsuago egiten gaituzte. Harreman onek, azpimarratzen dut. Hementxe bideoa ikusgai: <http://bit.ly/1noD39E>.

Ikerketaren ondorio nagusiari jarraituta, eta alabarekin etxe inguruan nagoenez, kalitatezko harremanak zaindu, garbitu eta berritzeko unera iritsi naizela sentitzen dut. Ea ondo egiten dudana. Alde batetik, eta zoritxarrez, harreman batzuekin dezepzio izugarriak hartu ditut azken urtetan. Ze gogorra den hau. Bestetik, etxean nagoen fase honetan, kokaleku profesionaletik kanpo, sumatu dut aurreko faseetako kide askoren zerrendetatik jausi egiten zarela. Ahaztu egiten zaituztela. Ez da asmo txarrez egiten den zerbait, baina halaxe gertatzen da. Hau ere mingarria izan liteke. Harreman onak zaintzeko aroa beraz, eta berriak egitekoa. ■

Bozka ezazu!
Bozkatzeko epea:
otsailaren 13tik martxoaren 10era
blogetan.eus

Antolatzailea: **azkue**
Fundazioa

Laguntzailea: **ARGIA**

Gin zitroina



Eric Dicharry
ANTROPOLOGOA

Diruak dirua ekartzen baitu, tautologi-koa den legea errespetatuz, dirua gehien dutenak gero eta aberatsagoak izanen dira. Matematikoa da, sistemaren logika. Beraz, urtero, Oxfam Solidarité erakundearen zenbakiak ezagutzen ditugunean, zergatik gelditzen gara harriturik eta aho bete hortz? Duela gutti, Akizen, Bizi! mugimenduko Jon Palais militantearen epaiketa izan da. Militantea epaitu zuten, paradisu fiskalak salatzeko banku batean kadira batzuk lapurtu zituelako. Uste duzue, ekintza zuzena eta desobediencia zibila delakoen bidez, munduko aberatsak ikaratu zituztela? Horrelako mugimenduetan parte hartzen dutenek, zergatik parte hartzen dute haien kontzientziarekin ondo moldatzeko ez bada? Horrela pentsatzen dutenek beste galdera bati buruz pentsatu beharko dute: zergatik gizarte guztietan betidanik, ekintza zuzenak, mugimenduak eta altxamendu sozialak izandako maskaradak, bestelakoak izango dira gaur egun? Non kokatzen da historiaren motorra, mugimendu sozial eta klase borroketan ez badago? Zein da historiaren motorra, aberastasuna eta haiek in batera doazen lurraldeen edukitzea ez bada? Mundua ez da aldatuko geure burmuin *logi-zielak* (*Softwarea*) ez baditugu aldatzen. Ez da aldatuko “ukan” aditzak “izan”-ena erregulariki fagozitatuko duen arte.

Arthur Rimbaudek zioenez, ekintza indarra xahutzeko moldea baino ez da bizitza: urduritzea, berotzea, haserretzea. Hautaketaren aurrean gaudenean bi aukera ditugu beti: egitea edo ez egitea. Baina, ez egiteak ez du esan nahi deusik ez egitea, mundua kontenplatzea baizik: begiestea, begi ematea, so egotea. Zinikoe edota ahalkegabeek urrundik kontenplatzen dituzte egiten diren ekintzak. Haientzat ekintza horiek denbora eta indarra galtzea dira. REM taldeko Frédéric Beigbederrek usu hitz hauek kantatzen ditu: “*It’s the end of the world and I feel fine*/Mundua bukatzeaz dago eta ni ondo sentitzen naiz”. Haren ustez, bidea *gin-zitroin* batean dago, neska gazte politen galtzamatzetan dago nonbait. Hortik datoz nire galderak. Gaur egun, ziniko izateko diruduna jai behar da edo dirurik gabe sortzen dena ere ziniko izan daiteke? Sosaz beterik sortzen denak zertarako joko du sistema kapitalista desorekatu eta zuzengabearen kontra? Dena duenak zein interes du sistemaren kontra jotzeko? Eta erantzuna etikan kokatuko balitz? Moralean. Burmuinaren ahulezian. Azken finean, zergatik borrokatu eta bizi, boterearen moralak kritikatzeko, bizi izatekoaren ilusioa berreskuratzeko edota historiaren lerroak aldatzeko ez bada. Zertarako gara mundu honetan? Nork bere plazer hedonista, indibidualista eta berekoia garatzeko edo ditugun baloreetatik eta etikatik mundua aldarazteko? ■

Trumpetak



Itxaro Borda
IDAZLEA

Txioak bidaltzen ditu goizeko lauak eta seiak artean kazetariak lo direnean, emazteak, beltzak, txiroak, indioak, amerikar kulture gile sosez okituak laidoztatzen ditu arraiki, mundua sutan irudikatzen du Txina, Europa ala Afrika aipatzen dituenean, Putinen adiskidea da, demokrazia *looser* delakoentzat dela dio eta ahulezia ez du altxor: neoliberalismoak ez du inoiz antzeko politikorik gobernura bultzatu eta izuaz haustear dago mundua.

Ameriketako Estatu Batuen ondotik, neurri apalago batean, Frantzia ere FNren iraultza igurikatzen dute elizek, nagusiek, Brigitte Bardot mitikoak, baita jendartearen parte handi batek

ere, salbamera, larderiatik, irainetik, latexeko azote kolpez lagundu erreforma sozialetatik etorriko dela sinetsiz. Ez dakigu zer egin sobera dugun libertatearekin eta prest gara kontsumo itzela betikoan ziurtatzearen libertate ezpalak zangopilatzeko.

Gutariko bakoitza, edozein dela aitzakia, sistemaren biktima sentitzen den honetan, boterearen hegalpean, bestearekiko mendeku harreman sadiko bezain masokista batean urtzen doa: auzoari eragin minak biziarazten gaitu eta maite dugu hori.

Trumpek ez duela bere mandatua bukatuko erraten da.

Parioak libre...

EMAKUME PRESOAK

ZIGOR PENALAZ GAIN, ZIGOR MORALA

Zigortzea da kartzelaren funtsa. Zigorra ordea, ez da denentzat bera izaten, bestelakotzen delako generoa, arraza, klase soziala edota beste ezaugarri sozialen arabera. Euskal preso emakumezkoen kasuan argi geratzen da zigor-sistema. Espetxea gizonak gizonarentzat pentsaturiko gunea eta unea izanik, patriarkatuari eta heterosexismoari aurre egin behar die emakumeak. Egiaztapen hori egunerokoan zer nola gauzaten den azaltzeko denbora hartu dute emakume preso politiko ohi eta eragile feminista batzuek.



Jenofa Berhokoirigoin

Kartzelaren barneko errealitatea ez da berdina izaten guztientzat. Zabalpenta-sistema ezberdinetan presoak duen kokagunearen arabera da zigorra. Euskal preso emakumezkoen kasuan begi-bistakoa izaten da zigorraren aragotzea: zigor bakarra izan beharrean, hirukoitza eta usu laukoitza dutelako. “Lehena zigor penala izaten da, legearen arabera delitu bat egiteagatik espetxean egotea, horri gehitu behar zaio euskal preso gisa dagoena, hau da, arrazoi politikoengatik diren salbuespen neurriak, baita emakume izateagatik gehitzen den zigorra ere”, Idoia Arraiza Zabalegi Bilgune Feministako kideak dioenez. Zigor Kodeak ez du halakorik finkatzen, alta, emakume identitatetik kartzelaz hitz eginen hasiz gero, ia sistematikoki ateratzen den ohartarazte bat da. “Delitua eta ema-

kumea bateraezinak direla sinestarazi nahi digu pentsamendu patriarkalak eta gehienetan emakume ona izateko sozializatzen gaituzte. Patriarkatuaren gidoi horretatik ateratzen garenean, gogor zigortzen gaituzte”. Soto del Real kartzelan bi urte pasa zituen Rosa Iriarte Laset preso politiko ohiaren hitzak dira.

52 euskal preso politiko emakumezko dira gaur egun 28 espetxetan sakabaturik. Buruan argi ukanik izendatzen ez dena existitzen ez dela, subjektu gisa emakumea harturik hitz egiten da geroz eta gehiago kartzela sistemaz. Aldaketa horren lekuko, azken aldi hauetan lortzen ari diren idatzi, hitzaldi eta ekimenak. Testuinguru hori eta feminismoak azken urteetan eskuratu ikusgarritasuna direla eta, hitza publikoki eta kolektiboki hartzeko urratsa egin zuten 60

bat emakume preso ohiak Kalera Kalera ekimenaren barruan: “Orain artean guk geuk behar bezalako garrantzia ematen ez genion auzi honi dagokion lekua egitera bultzatu gaitu giro honek”, Olatz Dañobeitia Ceballosen hitzetan. Sei urtez egon zen preso Dañobeitia Ceballos, 2001etik 2005era eta 2007tik 2009ra, Madrilgo Soto del Real, Avila, Alacanteko Villena, Galizako A Lama eta Arabako Langraizko kartzelatan. Emakume gisa kartzelako bortizkeriak zein diren zerrrendaturik, Euskal Herriaren gatazka politiko armatuaren ondorioei begiratzeko deiaz gain, “itzaletan gordetzen diren beste indarkeriak lantzeko” gomita luzatu zuten Usurbildik. Guztien ardua dela ohartarazirik, eragile askoren arteko elkarlanerako esparrua sortzea dute xede.



Abenduko azken egunetan aurkeztu zuten "Hemen gaude" manifestua kartzelatik pasatako bost belaunalditako 60 emakumeek, Kalea Kalea dinamikaren barruan.

Gizonak gizonarentzat

Badelako zer erran. Gorderik atxikiriko hirugarren zigor klase horri begira jarritz gero, hamaika aurpegi dituela oharzen gara. Kartzela gizonak gizonentzat irudikatu eta eraikiriko gunea eta uea izanik, diskriminazioa eta heterosexismoa eguneroko ogi dute emakumeek. Hain zuzen, kartzelei buruzko dokumentuetan arras gutxi aipatzen dira emakumeak. Gutxiengoa osatzen dutelako, eta ez dituztelako garrantzitsutzat jotzen. Espazioaren antolaketan berean islatzen den diskriminazioari aurre egin behar izaten diote. Horretaz hitz egitean adibideak ez ditu eskas, Madrilgo Soto del Real, Salamancako Topas eta Kordobako kartzeletan sei urte preso pasa zituen Teresa Toda Iglesiak: "Topaseko espetxeko komunitan zutikako pixale-

kuak daude eta eseritako gutxi... emakumeak hara bidali zituztenean inork ez zuen egokitze lanik planteatu. Kordobako espetxean, erizaindegiaren modulu ez dago emakumeentzako tokirik. Egoera larri edota ebakuntza baten errehabilitazioa modulu arruntean egin beharra dago". Betaurreko moreekin so eginez gero, egiaztapena da gunea ez ezik, giroa, portaerak, denboraren osaketa, kontrola, zigorrak, hots, guztia dela sexista.

Estereotipoen bortizkeria

Hain zuzen, generoan oinarrituriko jendarte antolaketaren estereotipoekin talka egiten du emakume borrokalaria izateak. Ona, sentibera, ezta zein bihotz zabala izatea dira berezko ezaugarriak, jitekotzat jotzen diren izaera eraikiak.

Parean ordea, gizona indartsua, kemenetsua, determinatua eta nonbait, kartzelan imajina daitekeena kausitzen da. Irakurketa binario horren arabera, emakumea kartzelan egotea zigortu beharreko gertakizuna da. "Zutaz espero denari buelta ematen diozu eta sistemak zigortzen zaitu", Arraiza Zabalegiren hitzetan. Izugarri bortitza dela dio Oihana Etxebarrieta Legrandek, espetxea tar-teko duten bikote harremanak aztertu dituen militante eta hautetsi feministak: "Genero eraikuntzan izugarritzko eragina duen espazioa da, genero kartzela bilakatzen da nolabait".

Dañobeitia Ceballosek gaineratu duenez, zigortzeaz gain, bide txarretik kendu eta bide onean ezartzeko logikan dabilta: "Kartzela emakume txarrak on bihurtzeko makina da, beti ere he-

teropatriarkatuaren baloreen arabera. Izan ere, izugarria da duen karga moralizantea. Horrek dakar eskaintako aktibitateak zeharo estereotipatuak izatea: joskera, zeramika, pintura ala beste, lasaitasuna eta diskrezioarekin errimatzen duten eginbeharrak dituzte esku artean. Futbol edo boxeori ez, horiek gizonentzako eskaintzak dira. Lana lortuz gero, gauza bera gertatzen zaie. Hor ere emakumeei zuzendutako ohiko lanak baino ez, eta soldata askoz apalagoarekin. Kartzelan izan ezik, atxiloketa eta galdeketa orduan ere gauza bera gertatzen dela gehitu du: Emakumearen izaera politikoaren eta militantearen ukazioaz hitz egiterakoan, gorputzean, sexualitatean eta rol estereotipatuetan kontzentratzeko joera. Entzun behar izaten dituzten hainbat “astakeria” adibide ematen ditu preso ohiak: Haien ekarpena gizonen sukaldari izatera edo behar sexualei erantzutera mugatzen dela, gizonezko bikotekideagatik eman dutela engaiatzeko pausoa, eta abar.

Horrez gain, zigor penala ere gogorragoa izaten dela ohartarazi du Arraiza Zabalegik. Demagun, presoak asaldatzerakoan, gizonezkoen jazarraldi batean baino lasterrago erreprimetuko dituzte emakumeak, haien iruditegian gizon bat bai, baina emakumezko bat ez delako erreboltatzen: “Emakumeak legeagatik baino, bekatu bat egiteagatik dira askotan epaituak, zigor morala da gehiago”, Bilgune Feministako kideak dioenez. Horren lekuko ondoko zenbaki esanguratsu hau: emakumeek euskal preso politikoen kolektibo osoaren %13 osatu dute, baina, bakartutako kideen %63.

Emakume zintzoa bihurtzeko xedearekin, kartzela sistemak “presoaren infantilizazioa” eta “sexualitatearen erabateko kontrola” gauzatzen duela deitoratu zuen Fleuryko presondegian den Itziar Moreno Martinez preso politikoak, urtarilaren 13ean publikaturiko gutunean. Gizonezko presoekin gertatzen bada ere, emakumeekin azkarragoa dela ohartarazi du. Hain zuzen, gizonak beharrian sexualak dituztela onarturik, horien asetzeko baliabideak jartzen dituzte, emakumeen kasuan, haatik, ez da beharrian horien kontuan hartzen. Hori horrela, gizonezkoentzat eskuragarri den pornografia zentsuraturik da emakumeen kartzelan; bisitenean sexu harremanak nekez gertatzen dira, pairaturiko ikuskatzeagatik,



Gaia jorrazteko asanbladak antolatuta dituzte; hizlarien artean Oihana Etxebarrieta Legrande eta Olatz Dañobeitia Ceballos izan dira.

kontrola “eraso huts bilakatzerainokoa” delarik. Agindu “iraingarriz” osaturiko derrigorrezko biluzketek ondorioztatu “umiliazioa” askok “bortxaketa” gisa bizi du. Bisita uneetan maiz deseroso sentitu izana oroitu du Toda Iglesiak ere: “Aurrez aurreko intimoak ia publikoak dira, espetxeko funtzionarioek badakite noiz egingo duzun; momentu batzuetan nahiko gaizki senti zaitezke”. Maitatzeari zuzenduriko denbora biziki mugatua dela gehitu du. Funtsean, intimitate falta orokorra da eta oro har, sexualitatea garatzeko eta bizitzeko aukera mugatzen du. Gizonen eta emakumeen arteko komunikazioa eta harremanak garatzeko aukerarik ia ez denez, “modu gaixoan

elikatze arrisku handia” izaten dela ohartarazi du Iriarte Lasetek. Harreman heterosexualak gogorrak izaten badira, homosexualak are gogorrago izan ohi dira. Erabat giro heteronormatiboa delako. Harreman lesbikoak “infantilizatze” edo “jolastzat hartze” joera ere deitoratu du Iriarte Lasetek.

Zaintza rolaren pisua

Zaintzaren rola kanpoan bezainbat bete ahal ez izanak zigor laukoitza ekar leza keela dio Arraiza Zabalegik; hori, nork bere buruari jartzen diona izanik. Hain zuzen, inguruko beharrak norberaren beharrak aitzin pasarazteko heziak dira emakumeak, eta nahi ala ez,

sakonki barneraturiko jarrera izaten da. “Kartzelaratuta direnean beraien buruarekiko zigor bat eragiten dute, beraien ingurukoei huts egin dietelako”. Kulpa sentimendu hori emakume askok sentitzen duten karga dela dio Bilgune Feministako kideak.

Zaintzari dagokionez, beste alde bat ohartarazten du Moreno Martinezek: “Gizonengana doazenean, nor egoten da itxarongeletan? Amak, emazteak, seme-alabak... Eta emakumeen espetxeetako itxarongeletan? Amak, ahizpak, seme-alabak...”. Bisiten orduan gehien-goan emakumeak kausitzea “zaintzaile rolaren erakusgarri” dela azaltzen du. Hau da, proportzioan aldea handia da mutil laguna bisitatzera doazen neska lagunak kopurua eta neska lagunak bisitatzera doazen mutilen kopuruaren artean. Emakumeek segurtatzen duten babes emozional hori baloratu gabea dela dio Arraiza Zabalegik. Gainera, harreman afektibo sexual osasuntsuak ukaiteko baliabideak erabat murrizturik direla deitoratzen du Etxebarrieta Legrandek. Adibideetariko bat da ko-

» **OLATZ DAÑOBEITIA CEBALLOS, preso politiko ohia**
 “Kartzela emakume txarrak on bihurtzeko makina da, beti ere heteropatriarkatuaren baloreen arabera. Izugarria da duen karga moralizantea”

» **IDOIA ARRAIZA ZABALEGI, Bilgune Feministako kidea**
 “Emakume presoek eta gure arteko harremanak sendotzeko eta aliantzak sortzeko helburua dugu”

munikazio esparruak urriak eta erabat kontrolatuak izatea. Harreman ahal bezainbat osasuntsua izateko bidean, behar afektibo eta emozional guztiak pertsona bakar batean ez bideratzeko aholkua ematen du Etxebarrietak. Hau da, preso dagoenak inguruan dituen beste presoengan ere topatzea babes sareak eta kanpoan dagoenarentzat, bikotekideaz gain maitasun eta zaintza emango dioten beste hainbat pertsona topatzea.

Feminismoa, ahalduntzeko

Kartzela, genero indarkeriaren askotariko formez jabetzeko “eskola gogorra” dela dio Toda Iglesiak. Espetxeke langileen jarreraz gain, preso arrunten errealitatean kausitu “matxismoaren adierazpen eta jarrera gordin-gordinak” eta horri begirako emakumezkoen “onarpenak” ere min egiten dio. Egoera gogor horretan, etsipenak hartzen du lekua artetan: “Askotan sutan jartzen zara entzuten edo ikusten duzunarekin eta inpotentzia handia sentitzen duzu”. Gune horretan biziraun behar izanik,



Kalean da otsaileko

aizu!

- Doneztebeko monasterioa argitara
- Punk-rocka zaintzeko, Orbain
- Maika Ariztegi, arin-arin
- Lurra, lantzen duenarentzat
- Korrika Kulturala prest
- Errefuxiatuak, Europaren lotsa

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus



Valladolideko espetxera martxa bat antolatu du Bilgune Feministak otsailaren 11n.

ikusmira feminista agertzen edo azkartzen zaiela dio. Funtsean, Dañoibeitia Ceballosek dioenez, feminismoa izan liteke ahalduentzako tresna azkar bat: “Bizi duguna ulertzeko eta identifikatzeko tresna handia da, zapalkuntza horren adierazpen ezberdinei aurre egiteko ere bai”. Halaber, askapen prozesu orotan beharrezkoa den elkartasuna eta berotasuna ere ematen dizkiela dio. Hala ere, bakoitzaren bizipen, ibilbide eta kontzientzia hartzearen araberakoa izanen da ikusmira feminista. Hori dela eta, preso guztientzat ahalduentzako tresna denik ezin liteke erran. Emakumeak feminista sortzen ez direla argi ukanik, erantzun gisa ondoko galdera luzatzen du Dañoibeitia


» **TERESA TODA IGLESIA**
“Kartzela, genero indarkeriaren askotariko formez jabetzeko eskola gogorra da”

» Emakumeek euskal preso politikoen kolektibo osoaren %13 osatzen dute, baina bakartutako kideen %63.

Ceballosek: “Galdera litzateke ea zein prozesu eta baliabide ezarri duen ezker abertzaleak eta Euskal Herriko mugimendu feministak emakume horiengana feminismoa gerturatzeko”.


Bilgune Feministaren lan ildoetari-ko bat da gatazka politikoari buruzko hausnarketa feministak bultzatzea. Otsailaren 11n Valladolideko presondegira egingo den espetxe martxa da gaiari lotzeko erabakiaren erakuspen bat. Bestalde, iaz formakuntza, ikerketa eta dokumentazio feministarako Emagin zentroak antolatu Eskola Feministak helburu horri begira zuzendu zituzten. Urrats bat gehiago eman eta presoak hausnarketaren barne izateko pausoak dituzte adosturik. “Beraien eta gure arteko harremanak sendotzeko eta aliantzak sortzeko helburua dugu”, Arraiza Zabalegik zehaztu duenez. Orain arte puntualki eta behar zehatz batzuk konpontzeko harremanetan ziren, egun haratago joan nahi dute. Espetxe martxan, elkartasuna adierazirik eta preso eta iheslari guztien etxeratzea exijitu ondoan, presoek gogoetak biltzen hasiko dira. Batetik, emakume izanda kartzela nola bizi duten eta bestetik, errealitate horri aurre egiteko ahalduentze tresnak zein ote dituzten galdetuko diete. Erantzunak batu eta bidaliko dizkiete, Arraiza Zabalegik dioenez, “beraiek ere sentitzeko subjektu bat osatzen dutela”. Presoen hitz eta esperientzietatik abiatuta, egoera jendarteratzen segituko du Bilgune Feministak. Presoen lekukotasunak biltzearen premiarekin bat egiten du Dañoibeitia Ceballosek ere: “Orain arte ez diegu emakume errepre-saliatu bakoitzak bizi izan dituen min eta erresistentzietatik begiratu. Ondorioz, ez dugu kontakizun kolektiborik eta ez dugu ikaspen kolektiborik sortu”. Gatazka politikoari eta gatazkaren ondorioei generoaren ikuspegitik begiratzeko gogo ikusirik, hutsune hau betetzeko osagaiak baturik direla dirudi. ■

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.800 bideo baino gehiago ikusgai



Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.





Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.




Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Mixel Berhokoirigoin, EHLGko presidente ohia

“Luhusoko ekintza egitea eta eragile politikoak ez zatitzea izan da lorpen handiena”

1952, Gamarte; Baxenabarre. Laboraria da. Euskal Herriko Laborantza Ganbarako (EHLG) presidente ohia. Baserri lanen erretretara pasa da, alta, Ainhize-Monjoloseko laborarien egoitzan segitzen du lanean. Iragan abenduan, “ETAren armagabetzearen aldeko” ekimenean parte hartu zuen Luhuso herrian, Michel Tubina, Jean Noël Etxeberri Txetx, Mixel Bergouignan, Béatrice Molle-Haran eta Stéphane Etxegarairekin batera. Bake prozesuaz eta Ipar Euskal Herriko egoera politikoaz mintzatu gara, baita sortu berria den Euskal Elkargoaz ere, Ganbaran.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Mixel Berhokoirigoinen hitzetan, politikagintza zeregin arrunt konplikatua da. Horregatik, politikak lan kolektiboa izan behar duela dio. Luhusoko ekimena, ETAren **desarmatze** lanean engaiatu izana, Laborantza Ganbaran eraman duen lanarekin parekatu du: “Ganbara sortzeagatik auzipetua izan nintzelarik, fokua ene buruaren gainean ezarri zuten. Lan kolektiboa pertsonalizatzeko joera izaten da. Alta, zeregin hori ez dela lider batena soilik pentsatu dut beti”.

Laborantza Ganbararen presidentea izan zen hamar urtez: “Postua onartu nuen, baina ene buruan baino taldeko lanean konfiantza nuelako. Eta hau ez da diskurtso teorikoa edo slogan bat. Ganbaran ageri denez, helburuak lortzen ari gara denon artean, ‘arrakasta’ lanak partekatuz erdiesten da”.

Hamar urteren ondoren, kontrol judizialpean dago berriz ere, Luhusoko

beste lau ekintzaileekin batera. Frantziako epaitegietan auzipetuta daude. Bostek elkar ikusteko debekua dute eta ezin dute estatutik irten. Poliziak Luhuson atxilotu zituen bost pertsonak oso ezagunak dira Iparraldean, nor bere eremuan militante historikoa. Tokiko hedabideek *Bakearen artisauek* izendatu dituzte: “Guk ez dugu izendapen hori bilatu, bakearen gogo gartsua dugu, baina ez dugu bakearen bandera eraman nahi. Baina, egia da, libre atera ondoren horrela deitu gaituzte”, erran digu apalki Berhokoirigoinek.

Hala ere, beren ekintzaren ondorioz sortu den bat-bateko mugimenduari horrela deitzea onetsi du: “Gauza ederra da, ederra denez, baina nork bere gain hartzea nekeza da. Gainera, zehaztu behar da, bakearen artisauek lanetan jende asko ari izan da. Baina, denak ez dira publikoki agertu baitezpada”.

Bake prozesuan engaiatzea

Bere engaiamenduaren nondik norakoa prozesu bat izan dela dio. Ez zela egun batean jaiki eta “gai horretan engaiatu behar dugu” pentsatu. Euskal Herriko bake prozesua blokeatua ikusirik, zenbait bake konferentzietan parte hartu du, Baiona eta Pariskoetan, besteak beste. Bi estatuek prozesuari ezezko borobila ematen diotelako modu are interesatuagoaz arduratu da gaiaz: “Gatazka armatuetan inplikatu dagoen alde batek –Espainiako eta Frantziako estatuak, kasu honetan– hasieran ezetza eman arren, une batean prozesua finkatzeko tenorea iritsi behar dela sinesten dut. Alta bada, gaian inplikatzeko ‘pertsona enblematiko’-en gain al dago?, galdetu diot usu ene buruari”.

Laborantza Ganbarako presidentea ohiak zalantzak ditu norbanakoen engaiamendu soilen lorpenez. Bere us-



tez, edozein ekimen aitzina eramateko prozedura tentu handiz landu behar da. Bere buruan galdera hauze izan du luzaz: “Beste gatazkak elkarrizketaren bidez irtenbide batera arribatu badira –eta hori ere ez da guztiz ziurtatua–, hemen zergatik ez?”.

Borroka armatua geldituta ere, prozesua ontzea ez dela kontu mekanikoa, denbora beharko zela jakitun da: “Agian batzuek pentsatzen zuten, borroka armatua gelditurik, hurrengo urratsak modu automatikoetan emango zirela”. Halarik ere, bera ere denbora joan ahal, gatazkaren konponbidea tratatua ikusteak zeharo harritu du. Denbora behar zela pentsatzen zuen, bere erritmoa...: “Baina momentu batetik aitzina, denbora bereziki gure kontra doala ohartu naiz. Bi dira arrisku nagusiak, gizarteak arazoarekiko distantzia hartzea, eta ororen buru, denok konforme

gelditzea. Hau da, borroka armaturik ez dagoela, bortizkeriarik ere ez, beraz egoera normalizatua dela pentsatzea”.

Euskal kausaren aldeko militante hau prozesuaren geldotasunaz beldur da. Gatazkak sorrarazi dituen biktimak, presoak eta guztion sufrimenduak lehentasuna ez ukaitea jendartean, gizartearen problema ez izatea. Konpondu gabe dagoen arazo handi hau “normalizatzea” edota ezereztatzea: “Frustrazioa handituz joan daiteke. Errespetu gutxieneko batez bukatzen ez den konfliktoak haziak uzten ditu iraganeko gatazka moldea ernaltzeko berriz ere”.

Solaskidearen aburuz, jendarte zibila-ren inplikazioa baitezpadakoa da. Arazoak ez badu behar bezalako interesa pizten jendarengan, ez da aski indar izanen instituzioak prozesuan inplikatzeke, eta instituzioak ere ezinbestez engeiatu behar dira: “Gakoa jendartean

dago, jendeak ez badu gaia biziartzten beste inor ez da arazoan inplikaturko”. Laborari baxenafar hau ez da inoiz borroka armatuaren ildoan ibili, ezta hurbilean ere. Orain baina, ETA desarmatzen laguntzeko inplikatua da: “Segurki, batzuek pentsatu dute: zertan sartu dira horiek? Borroka armatuaren estrategiarekiko gure distantziak ezagunak dira, baina horren ondorioekin bukatzen laguntzea guztion zeregina da. Ez gara zeruak argieginak, baina gure gaia dela pentsatzen dugu. ETArekin eskutitzak trukatu ditugun hiru kideez ari naiz bereziki [Tubina, Txetx eta bera], baina ez gara bakarrak, badago jende gehiago gure gibelean. Euskal Herriko pertsona batzuekin eta besteekin hitz egin genuen. Ekintza, talde zabalago batean gogoetatu dugu, askotariko jendea gara, gainera, bederazka, gatazkari buruzko ikusmolde ezberdinak ditugu”.

» “Luhusoko ekintzaren efektua baliatu behar dugu saio berri bat egiteko. Oraingo Gobernuak hiru hilabeteko bizitza dauka, eta azkeneko zatia, hauteskunde kanpaina dela eta, pozoitua izanen da”

“Estatuei hauxe esaten diegu: ez baduzue ETArekin hitz egin nahi, ez egin, baina gurekin hitz egin”



Talde horretako beste partaidez galdetu diogu solaskideari: “Nor diren jakin nahi duzu, baina ez dizut izenik emanen”. Bakearen aldeko ekintzaile hauek hainbat jende esanguratsuren “temperatura” hartu nahi izan dutela esan digu. Inplikazio maila ezberdinak izan dira. Batzuk jakinaren gainean zeuden doi-doia, beste batzuek ekintzaren arazoia ongi ezagutzen zuten: “Eta kontent gaude. Egin duguna, ez ulertua bakarrik, onartua izan baita oro har. Ekintza prozesuaren dinamikari berriz ere lotzeko baliagarria izan da. Kontuz aritu gara. Jende batzuk ez ditugu izan erabat gurekin, eta hurbil direnei ‘opari pozoitsuak’ ez emateaz arduratu gara”. ETArekin armagabetzea gauzatu ezin izanak bake prozesua trabatzen du, prozesuaren zati oso korapilatsua da : “Jende asko diskrezioz aritu izan da eta ari da. Baina kasu, pertsona bat lagun edo traba bilaka daiteke. Nahiz eta gure ekintza borobiltzeko interesgarria izango zen pertsona horien izenak ezagutaraztea, pertsona horiei ez zaie lagungarri izaten geroan. Areago, egunen batean erraten badute ekintzaren berri zutela, arazoak sortzen ahal zaizkie. Duten ardurarengatik, instituzioetan edota beste zereginetan, hobe nor diren jakin ez izatea”. Ez da erraza bake bidea urratzea.

Haatik, Luhosoko ekintzaren berri Hegoalderaino iritsi da. Aspaldiko partez, PP eta PSE-EE ez beste alderdiek bake prozesua bizkortu beharra adierazi dute prentsaren aurrean Bilbon. Frantziako goi-mailako estamentu batzuetara ere iritsi da ekintzaren oihartzuna. Paristik itzultzean, atxilotuek zer harrera izan duten ikusita, jende askoren ihardukitzea karrikaraino heldu da: “Hautetsien kezkek eta gure ekintzak topo egin dute. Hori espontaneoki gertatu da, ez da preparatua izan. Ikusten delarik hainbat jenderen aurpegiak eta beren keinuak, zerbait mugitu dela ohartzen zara. Hobeikiago egiten al zen? Noski, ez dugu nahi genuena lortu, baina egin duguna beharrezkoa zenez jabetu gara”.

Luhosoko ekimena emeki-emeki prestatu zuten. “Bakegileak” deituek ekintza handi bat egitea xede zuten, armagabetzearen afera politikaren agendako lehen orrialdean jartzeko: “Lehenago ETArekin desarme sinboliko gisako bat izan baitzen, eta guk ez genuen hura errepikatzea nahi. Nahiz eta poliziak gure ekintza geldiarazi zuen, prozesua

zabaldu nahi ez dutenek gure parte-hartzea beste gisa batez baloratu dute”.

Mixel Berhokoirigoinek hauxe errepi-katu digu: “Ekintzaren baitan gogoeta kolektibo bat dago. Gure kezka ekintzaren ‘muga’ zen. Ez genuen nahi onartua izango ez zen ekintza bat. Ez genuen orain arte egin dena hautsi nahi ere. Nazioarteko Begiraleen lana, konparazione. Inor kaltetu gabe, jendartea eta eragile politikoak inarrosi nahi izan ditugu”.

Estatuen blokeoa

ETA desarmatzeko prest dela aspalditik dio solaskideak, armen inbentarioak eginak dituela. Estatuak desarmatzeko aukera blokeatu dute ordea: “Eta guk urrats hori eman dugu. Bagenekien eta bada-kigu ETArekin harremanetan sartzea arriskutsua dela. Aurkariek, ‘hara, zuek ETArekin inplikaturik zaudete’, erran dute berehala”. ETak baina, arazoak ditu ar-mak bere gainetik kentzeko. “Hau da, arazoak segitzen du dagoen bezala edo arriskuak hartzen dira”. Berhokoirigo-
inen iritziz, prozesuan aitzina egiteko emandako urratsa baitezpadakoa izan da. Izan ere, haiek baldintza hau jarri dio-
te ETari: “Zuen armen kudeaketa politi-
koa gizarteari utzi behar diozue”. ETak hori onartu izana oso inportantea, bere ustez.

Poliziaren interbentzioa izan zitekeela kontziente ziren, prestatu zuten plan-
ak beste xede bat zuen: “Ez genuen B
planik, bistan da. Ekintzaren desarmatze
filmatua Frantziako Gobernuari helaraz-
tea xede genuen. Nazioarteko eragileak
informatuz eta hemengo eragile politiko
eta sozialak ere kontuan hartuz”. Zer ger-
tatu zen ordea, polizia Luhuson agertze-
ko?: “Ekimenaren berri ez genuen hiru-
rok bakarrik, erran bezala, talde zabalago
batek gure ekintzaren asmoa ezagutzen
zuen. Ez dakit bakoitzak hurbileko bati
erran ote zion eta hortik zabalduz joan
zen. Edo poliziek badituzte bitarteko tek-
nologiak guztiok segitzeko eta dena kon-
trolatzeko. Ez dakit, ez dakit”, aitortu digu
bakearen aldeko militanteak.

Bere ustez, Parisko RAIDek, eliteko po-
liziak, ekintzaren berri izan zuen egun
berean. Poliziek bazekiten zerbait, baina
ez dena. Ororen buru, Luhusoko ekin-
tza zapuztu izana euren aurka itzuli da:
“Tronpatu dira. Operazioaren bilan po-
litikoa egiten bada, Estatuak galdu du.
Frantziako Gobernuaren ohiko bertsioa
bertan behera erori da, ez du funtzio-

“EUSKAL ELKARGOA ABIABURUA DA”

Zer iritzi duzu Euskal Elkargoaz?

Baikorra naiz. Bistan da, arrisku bide
batean sartu garela ohartzen naiz,
besteak beste, alderdi politikoek par-
te-hartze handiagoa izanzen baitute.
Hasieran gara, alde onak edo eskasak
izanik ere, beharrekoa zen urratsa
eman dugu. Nik egitasmoen dinamikan
sinesten dut, ez bakarrik pertsonen
dinamikan. Erakunde berria dugu, ere-
mu politikoan dekorazio berria ezarri
duen koadroa.

Jean-René Etchegaray da presidentea.

Lagunak bilakatu gara. Baterako kidea
da. Laborantza Ganberako abokatua,
ene kontrako auzien defendatzailea.
Boterea kudeatzeko ariketaren te-
norea heldu da, zailena beharbada.
Jean-Réné bere hitzari fidela izan zaio,
onest da. Ez da faltsukeriatan ari izan,
konfiantza dut harengan. Euskal Elkar-
goaren lehen biltzarrean bere helburua
Lurralde Kolektibitate zela erran du.
Hori aitortzea inportantea da. Hautetsi
izan ez balitz, Bateran engaiatu eta har-
tu dituen karguak hartu izan ez balitu
[Baionako auzapez eta Hautetsien Kon-
tseiluko presidente karguak] gaur egun
ez zen Euskal Elkargoa izango. Haute-
tsien Kontseiluko presidentetza hartu
zuen Jean-Jacques Lasserreren orde-
z. Lasserre presidente izan zen artean,
Lurralde Kolektibitatearen aldarrika-
penaren ondoren ibili zen, gero, Depar-
tamenduko presidente kargua berres-
kuratu zuelarik, ez dugu gehiago ikusi.
Ez da Euskal Elkargoaren alde argi eta
garbi agertu. Kargudunen batek hel-
du behar zion egitasmoari. Etchegaray
izan ez balitz, Henri Etcheto izango zen
[Baionako hautetsi sozialista], Elkar-
goaren aurkakoa. Etchegaray presiden-
teari errespetua zor zaio, 231 bozetatik
157 eskuratu ditu.

Sorreraren egunean ageri zenez, Euskal Elkargoak hainbat aurkari baditu.

Horien aldetiko oldar handiena pasa
da. Hasteko, beren artean ez dira ados.
Gotaine-Irabarneko Bernard Louga-
rot auzapezak herri txipien aldeko
diskurtso egin du, itoak izanzen direla,
boterea kostaldeko hirigunetan dela
erranez. Jendearen bihotza hunkitzeko

mintzatu da, herri txikietako ordezkari
parrasta identifikatu da bere diskur-
tsoarekin, baina haien boza aseguran-
tza bat hartzen den bezala eman dute.
Hala ere, Lougarotek 51 boz ukaiteak
badu esanahi bat. Laugarotek Euskal
Elkargoaren aurka bozkatu du bere
herrian, alta, elkargoaren kontrakoek
boterea herri txipiek dutela diote. Ale-
gia, dirua kostaldeko herriek emanen
dutela eta herri txipiek baliatu. Denak
daude elkargoaren aurka, baina kon-
traesanetan erortzen dira, ez dira akort
jartzen. Angeluko hautetsi Jean-Jac-
ques Doyhenart-en diskurtsoa katas-
trofiko izan da. Ez dut ulertu hitza
hartzea “Euskal Elkargoaren kapita-
la handia dela, austeritate ekarriko
duela eta abertzaleen nahia betetze-
ko egina dela” esateko. Zuberoak Olo-
renekin bat egin beharko lukeela dio,
Hego Landak Lapurdirekin, Donapa-
leuk Biarnorekin. Noski, eta hau ez lit-
zateke Euskal Herria izango. Betiko
diskurtsoa. Bost boz bildu ditu. Ene
ustez, lanaren dinamikak Elkargoaren
barnera ekarriko ditu edo beren burua
kanpoan ezarriko dute.

Abertzaleen artean ere badira zalantzak dituztenak.

Nik ere hasieran duda asko izan nuen.
Baterako bileretan, bide berrian sar-
tzean, “Lurralde Kolektibitatearen bo-
rroka sobera erraz eta fite abandonatu
dugu” erran nuen. Erdietsia genuen in-
dar metaketa izugarria zela argudiatu
nuen: herritarrak, hautetsiak, Garapen
Kontseilua... Lurralde Kolektibitatearen
aldarrikapenaren ildoan segitzeko kon-
bikzioa nuen, Laborantza Ganbararen
espirituaren lanaren ari izanez, alda-
rrikapen harekin segitzeko baldintzak
bagenituela nioen. Baina ez dut ikusi
aski indarririk edo girorik disidentzian
sartzeko. Halaber, gero ohartu naiz
ene azterketa ez zela arras zuzena, usu
pentsatzen duguna eta posible dena
nahasten ditugulako. Izan ere, NOTRe
Legearen bidez erdietsi dugun Euskal
Elkargoa ez da irabazia, aukera hau
lantzen eta borrokatzen segitu behar
dugu, bestela deus gabe gera gaitzke.
Euskal instituzioa funtsean egitekoa
baita, lortu duguna abiaburua da.

natu. Frantses hedabideek barne ministroaren bertsioari segitu diote, operazio antiterrorista zelakoan, gu ETako zuzendaritzako kideak bezala ekarri gaituzte”.

Ekintzaegileek baina, ETarekin trukatutako eskutitzak argitaratu zituzten berehala, egitasmoaren zentzia eta argibideak zehatz emanaz. Hala berean, manifestazio oldeek ito dute Barne Ministerioaren bertsioa. Gertatua misterioa izan dela dio solaskideak: “Alabaina, polizia operazio hori muntatzea ez da sinesgarria, gero, politikoki haien aurka itzultzen bada. Gau hartan beste zerbait aurkitzea espero zuten. Jakin izan balute Luhuson benetan zeudenak, ez zuten horrela jokatu. Haiek pentsatu dute eta kideak ari zirela armak suntsitzen, baina ez, gu ginen”.

Luhusoko ekintzaren ondorenean

Desarme ekintzaren ondoren ezer aldatu al da, bake prozesuari begira?: “Hasteko, Iparraldean orain arte mugitu ez den jendea ikusi da manifestazioetan. Familia osoak ziren, lehen ez zen halakorik ikusi. Beharbada, gu tartean izateak gure mezuari ate batzuk ireki dizkio. Hainbat jende hasi da gatazkaren egoeraz interesatzen, gu inplikatu garelako. Badakite gu ez garelako edozein gauzatan sartzen eta arazoa ulertu nahian hurbildu dira. Guk ez dugu gertatua pertsonalizatu nahi, baina, naski, ekimenaren alde berri bat hori izan da. Gure jarduerak marra batzuk gainditzen lagundu du eta jendearen gogoeta sorrarazi. ‘Horiek horretan inplikatu badira, guk gertatzen dena behar dugu ulertu bederen’ pentsatu dute”.

Politikariek ere orain arte erakutsitako inplikazioan beste urrats bat eman dute, inoiz baino ozenago mintzatu dira. Gobernuko kideak eta diputatuak mugitu

“Ekintzaren desarmatze filmatua Frantziako Gobernuari helaraztea genuen xede”

dira, mugimendu eta sare sozial zabala aktibatuta da: “Alain Roussetek [Erregioko Kontseiluaren presidentea] Luhusoko ekimenaren kariatara sostengatu gaitu, Akitania berriko biltzarra bildu du eta bere mezua Parisera helarazi. Roussetek guk hala jokatzeko ontrat eman du. PSren barruan jarrera ezberdinak daude ETaren arazoaren aurrean”. Paristik itzultzean, Berhokoirigoiek honela adierazi zuen prentsan: “Orain, gizarteak du ETaren armategiaren ardura politikoa”. Berdin pentsatzen jarraitzen duela berrietsi digu: “ETaren arazoak herria baldin bada, ez du kontraesanik izan behar, herriari utzi behar dio kudeaketa politikoa. Noski, alde hori hobeki landu eta zehaztu behar da, baina argudio hori ez da txikia, hau da, guk estatuei ‘ez baduzue ETarekin hitz egin nahi, ez egin, baina gurekin hitz egin’ esaten diegu”.

Aspaldian hasitako lanaren emaitza da: “Ipar Euskal Herriak Euskal Herria osoari egiten ahal dion ekarpena da, bide luze horretan, pausoaz pauso eta marraz marra, hozka bat gorago eraman dugu gure nahikaria, eta segitu behar da. Ekintza hori egitea eta eragile politikoak ez zatitzea izan da lorpen handiena. Eta pretentsiorik gabe. Batzuetan ‘Iparraldea da gure iparra’ entzuten dut. Baina bi historia ezberdin ditugu, guk ez dugu instituziorik ukan, eta beharbada horrek lagundu digu politika beste gisa

batez ulertzen. Guk instituzio propioa ez izateak lagundu du berau nahi dutenen arteko elkar ulertze bat sustatzen. Eskatzen duzularik zerbait, behar duzu zure argudioa eta bere funtsa elkarrekin landu besteekin”. Beste gisa batez errana: “Euskal instituzioaren eginbidean hamabost urte eman dugu, horren inguruan kultura politiko bat sendotzen joan da. Batera sortu zelarik ikusi genuen hori zela bidea. Horrek lagundu du aldi berean gure arteko gatazkak bideratzen, jendarateak nahi duena modu pluralean formalizatzen nolabait. Nolabaiteko boterea duzularik, Hegoaldean bezala, bestela jokatzeko duzu”.

Bere ikuspuntutik, aukera berria izanen da bake prozesuan urratsak emateko: “Luhusoko ekintzaren efektua baliatu behar dugu saio berri bat egiteko. Oraingo Gobernuak hiru hilabeteko bizitza dauka, eta azkeneko zatia, hauteskunde kanpaina dela eta, pozoitua izanen da. Epea laburra da, baina anitzetan hiru hilabetean egiten da bost urtetan egiten ez dena. Aldi labur honetan beste urrats bat ematea posible da, baina diskretuki lan egin behar dugu”. ■



2. finalaurrekoa | **ZIGOITIA** Kultur etxean | **OTSAILAK 12** igandea 17:30

Gobernuzkoak - Aintzara Inazula Arakua

Iñaki Viñaspre Simon	Xabi Igoa Eriz	Iker Agirre Urribarren	Jagoba Apolaza Kizito	Serapio Lopez Ortuela	Andere Arriolabengoa Bengoa

ARABAKO Bertsolari Txapelketa 2017

www.bertsozale.eus/araba

SAGARRONDOTIK SAGARDORA

2017KO IKASTARO PRAKTIKOA USURBILEN

Otsailak 11:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA ONGARRIKETA.

Aitor Etxeandia

Kimaketa
Praktikak
Bertako
sagastietan
egino dira!

Martxoak 4:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK ETA
TRATAMENDUAK. Aitor Etxeandia

Martxoak 11:

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA.

Josu Osa

Apirilak 1:

GARBITASUNA KALITATEAREN LAGUN. SAGARDOA EGURREZKO
ONTZIETAN ETA SAGARRONDOAREN BIZIMODUA.
Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondo

Apirilak 22:

ILARGIA ETA EGUTEGI BIODINAMIKOA

Xabier Akizu

Ekainak 3:

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK.

Aitor Etxeandia

Uztailak 15:

FRUITU ARBOLEN UDAKO EDO BEGIKO TXERTAKETA.

Josu Osa

Irailak 9:

SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK. ETXEAN SAGARDOA
EGITEKO HASTAPENAK. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain

IKASTAROEN ORDUTEGIA: 9.00etatik 13.00tara

LEKUA: Potxoenea Kultur Etxea (Usurbil)

Ikastaro osoaren prezioa: 96€ (Alkartasuna Kooperatibako bazkideek DOAN)
Egun solteetan izena ematea ere badago; jarri Alkartasuna
Kooperatibarekin harremanetan.

**IZEN EMATEA: 943 36 11 14 alkartasuna@usurbil.com edo
www.alkartasuna.eus**


ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba

“5 urtez ur eta argi gabe eduki nau eta atea blindatu dit Kutxabankek, etxetik botatzea lortu duen arte”

Kutxabankek etxetik kaleratu zuen arren, bertan bizitzen jarraitu du Juan Carlos Infante irundarrak. Bankuak du etxearen jabetza, baina justiziak ebatzi du pisuan bizitzen segi dezakeela Infante eta negoziatzera derrigortu du Kutxabank. Hala ere, irundarrak kontatu digu bankuak ez duela negoziatu nahi, Kutxabanken aginduz urik eta argindarrik gabe eman dituela bost urte eta ateko sarraila bost aldiz aldatu diotela. Pasa den urtarrilean, etxean ate blindatua jarri zion bankuak eta amore eman du azkenean, ezin du gehiago, pisuaren ordainetan diru gehiago ez ordaintzea du orain helburu, interes abusiboak gehituta 160.000 euro eskatzen baitizkio Kutxabankek.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Etxean ez sartu ahal izateko ate blindatua jarri zioten urtarrilaren 3an, eta ordutik arropa berarekin eta poltsikoan zituen 20 euroekin hilabete eman du Juan Carlos Infante, bere gauza guztiak etxe barruan dituela. Aurretik, salaketa bat ere jarri zion bankuak bide penaletik; espetxean amaitu zezakeen irundarrak. “Mafioso hutsak dira”, dio. Baina kontatu dezagun hasieratik, Infanteren kalbarioa hobeto ulertzeko.

41 urte ditu Infante eta 19-20 zitueanean pisu txikia eta zaharra erosi zuen; hogeitertetik gora eman ditu bertan bizitzen. Lanik gabe geratu zen eta langabezia eta subsidioa kobratu bitartean hipoteka ordaintzen jarraitu zuen, baina biak bukatu zitzaizkionean orduko Kutxarekin akordioa lortzen saiatu zen; “haien erantzuna izan zen ez-ordaintze prozesua behin hasita ez zegoela geratzerik”, eta 2010 inguruan bankuak etxearen jabetza eskuratu eta kaleratu egin zuten. “Mesede bezala ordu erdi emango dizugu gauza guztiak hartzeko” esan zidaten, eta uko egin nuenez, gauzak han nire borondatez utzi nituela zioen orria eman zidaten sinatzeko”. Horren orde, hurrengo egunean etxea okupatu zuen Infante,

ondoren Kaleratzeak Stop plataformarekin jarri zen harremanetan eta alokairu soziala negoziatzen saiatu ziren, “baina ezer ez”. Hedabideetan dezenteko oihartzuna izan zuen bere kasuak eta Kutxabankek begiz jo zuela uste du kaltetuak: “Hedabideetako zurrunbiloaren ondorioz Irungo sukurtsaleko langile batzuk kaleratuko zituztela eta nire errua zela esan zidaten, erasokor; gaizkile baten gisa tratatu naute. Min handia egin zien komunikabideetan halako sona izateak eta mendeku gosea dute nirekin, bide penaletik eraman nahi izan ninduten, espetxean amaitu nezan, baina epaileak prozesua gelditu zuen”. Ebazpen judizialak, izan ere, etxean jarraitzeko baimena eman zion irundarrari, eta negoziatu zezatela agindu zuen. Etxearen jabetza, ordea, bankuak du, eta muturreko jokaerak sortu ditu egoera horrek.

“Inoiz ez digute erantzun, ez dute akordiorik nahi”

“Inoiz ez gara negoziatzera eseri –dio Infante–, Kaleratzeak Stop plataformako abokatuak eta biok eskutitzak bidali dizkiegu, alokairu soziala proposatu

diegu, eta inoiz ez digute erantzun, ez dute akordiorik nahi”. Jada, ordea, irundarrak berak ere ez du etxean segitu nahi: “Psikologikoki ezin dut gehiago, etxe horretara ezin dut eta ez dut nahi bueltatu, bost urte eman ditut Kutxabanken aginduz argirik eta urik gabe bizitzen eta baldintza jasanezinak dira”. Iberdrolara ordainketa egitera joan zenean halaxe adierazi zioten, Kutxabankek agindua emana zuela, argindarrik ez emateko. Denboraldi batez, lana lortu zuen gasolindegia batean, eta nominatik zuzenean portzentaje bat kentzen zion bankuak. Atearen sarraila bost aldiz aldatu ostean, ate blindatua jarri eta helburua lortu zuten: ordutik ez da pisura itzuli Infante, gizarte zerbitzuek ordaindutako ostatu batean dago. “Ate blindatua jartzeko denbora dezente behar da eta juxtu egun osoa kanpoan eman nuen egunean egin zuten. Kasualitate handia, ezta? Ez ote ninduten zelatatu...”

“Etorkizun bat izateko aukera kentzen dizute”

“Gogorra da hainbeste urteren ostean etxea galtzea, baina pisuaren ordainetan



Hilero, %30eko berandutze-interesak gehitzen joan zaizkio zorrari eta uneotan 160.000 euro baino gehiago eskatzen dizkio bankuak, "etxea kasik ordainduta nuenean, 20 urte nituenetik daramat ordaintzen!". Irudian Juan Carlos Infante, hoguei urtez bizitoki izan duen pisuko fatxadaren aurrean.

zorra kitatzea da orain helburua". Hile-
ro, %30eko berandutze-interesak gehi-
tzen joan zaizkio zorrari eta uneotan
160.000 euro baino gehiago eskatzen
dizkio bankuak, "etxea kasik ordainduta
nuenean; imajinatu, 20 urte nituenetik
daramat ordaintzen! Bi etxebizitza adi-
na ari zaizkit eskatzen, tasazioa kontuan
hartuta. Abusiboa da erabat, eta hile-
roko gurpil zoro horretan murgilduta
egotea sufrikarioa da, lana bilatzeko ere
eragiten dizu eta ez dizu aurrera egiten
uzten, etorkizun bat izateko aukera ken-
tzen dizute, kateatuta zauzkate".

Udaleko atea jo du Infante eta Irungo
alkatea prest agertu da bitartekari lana
egiteko eta bankuarekin hitz egiteko,
etxearen ordainetan diru gehiago eska-

tu ez dezan. Luzerako prozesua izan-
go dela uste du irundarrak, eta orain
pisu txiki bat alokairuan lortzea da bere
lehentasuna. Diru-Sarrerak Bermatzeko
Errenta balia dezake alokairurako eta
gizarte zerbitzuek ordainduko diote sar-
rerra. Dena oso motel doala dio, izapide
eta burokrazia andana tarteko.

"Kaleratuko zaituztela esaten duzun
momentutik administrazioak protoko-
lorik ez izatea, mekanismorik martxan
ez jartzea hutsegitea iruditzen zait. Os-
tatuan, nirekin batera, etxetik bota di-
tuzten bost laguneko familia bat dago,
baita kaleratua izan den beste ama ba-
kar bat ere, ezintasunak dituen haurra-
rekin, eta Udalak larrialditarako pisuak
ditu hutsik, bete gabe. Ez dut ulertzen".

» "Min handia egin zien
komunikabideetan nire
kasuak halako sona
izateak eta mendeku
gosea dute nirekin, bide
penaletik eraman nahi
izan ninduten. Mafioso
hutsak dira"

» "Psikologikoki ezin dut
gehiago, etxe horretara
ezin dut eta ez dut nahi
bueltatu, baldintza
jasanezinak dira"

» "Ez dute aurrekari
bihurtzea nahi, besteek
ere berdina egin
dezaketela pentsatzea"

"Azkenean erokeriaren bat egingo dut"

Istorio korapilatsua entzun eta galdera
inozoa egin dugu: bankuarentzat ez al
da sinpleagoa negoziatzea, egoera ho-
netara iristea baino? "Bai, baina ez dute
aurrekari bihurtzea nahi, besteek ere
berdina egin dezaketela pentsatzerik
nahi. Batzuekin tratua lortzen dute ban-
kuek, etxea lehenbailehen utzi dezaten
eta ez dezaten publiko egin, bestela bes-
te batek jokaldia errepikatzea eskatuko
du, horren beldur dira. Izan ere, gaur
egun oraindik kaleratze asko eta asko
egiten dira, baita alokairuan daudene-
nak ere".

Gurekin kafea bukatu eta zuzenean
udaletxera joan da Juan Carlos Infan-
te, zeregin eta buruhauste askori egin
behar die aurre oraindik, eta ilun ikus-
ten du etorkizuna. "Muga-mugan nago,
psikologikoki jota. Denbora asko dara-
mat lo egin gabe eta azkenean eroke-
riaren bat egingo dut, eztanda egingo
dut". ■

MBYA-GUARANIAK ETA EUSKAL ETXEA ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO LOTURA

Turistak erauntsika heltzen dira egunero Argentinako Iguazu Parke Nazionalera. Txundituta pilatzen dira ur-jauzien pareko pasareletan. Handik irteterakoan, ordea, hegazkina edo autobusa hartzen dute, hurrengo helmuga turistikora bidean. Ez dute Misiones probintzia sakonago ezagutzeko interesik izaten. “Ni, gaur egun, ez nintzateke beste inon biziko”, baieztatu du, berriz, Olga Leiciagak. Buenos Aires probintziako Saladillo herrian hazia da 78 urteko emakumea. Gaur egun, Misionesen dagoen Corpus Christi herrian bizi da, bertako Eusko Etxea elkarteko presidentea da.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Unai Oiartzun

@UnaiOiartzun

Inguruko lurraldearen berezitasunak kontuan hartuta, ezohiko euskal etxea da Corpus Christi herrikoa. *Mbya-guarani* komunitateekin egiten duen lana da haren bereizgarri nagusia. Argentinako mapari begiratuta, ipar ekialdean kokatutako adar txiki bat da Misiones probintzia. Brasilek inguratzen du alde batetik, eta Paraguaik bestetik. Paraguairekiko muga Paraná ibai emaritsuak finkatzen du. Polizien kontrolak gora-behera, inguruko jendeak ondo daki Paranáko muga erraz gainditzen dela. Narkotrafikatzaileen ekintza ohikoa da bertan. “Gehienek dakite nortzuk diren, baita Poliziak ere. Baina ez du esku hartzen, gehienetan, negozioaren parte delako”, azaldu du Olga Leiciagak. Corpus Christi herriaren inguruan beste ezaugarri nagusietako bat, bide bazterretaraino heltzen den basoa da. Garai batean oihana zela adierazi du Leicia-

gak, baina azken hamarkadetan, pinuz josi dituztela ehunka hektarea: “Oihana suntsitzen ari dira, egurraren salmentarekin dirua egiteko”. Zuhaitzez libre dauden eremuetan, mate eta te landareen lursailak dira nagusi.

Corpus Christi herria XVII. mendean sortu zuten jesuitek. Jatorrizkoa den guarani herriko komunitateak ebanjelizatzeke asmoz heldu ziren, garai hartan, egungo Misiones probintziara. Gaur egun ere, badira hainbat guarani komunitate, basoaren erdian dauden herrixketan bizi direnak. Antzinako hizkuntzari, kulturari, ohiturei, sinesmenei eta bizimoduari eusteko ahaleginean jarraitzen dute, haientzat arrotza den sistemaren oldarraldiei aurre eginez. Errealitate horren berri izan zutenean, komunitate haien alde lan egiteko helburuari heldu zioten Corpuseko Eusko Etxea elkarteko kideek, 2005. urtean

sortu zenean. Europako emigranteen ondorengoak dira, gaur egun, Corpuseko biztanle gehienak. Eta euskaldunak ere badira horien artean.

Eusko Etxeak egurrezko etxetxo batean du egoitza. Corpuseko bizilagun guztientzat zabalik dagoen liburutegi bat osatu dute, euskal gaiei eskainitako tarte handi bat duena. Hitzaldiak antolatzen dituzte, eta euskal dantza taldea eratzeko lanean ari dira. Guarani herriko komunitateekin egiten duen lana da, alabaina, Argentinan dauden beste hamarnaka euskal etxeekiko ezberdin egiten duena. Corpusen inguruko komunitateekin harremanetan jartzea lortu zuen Eusko Etxeak. “Kostata, nahiko itxiak baitira. Arrotzarekiko mesfidatiak”, onartu du Ana Maria Macchik. Komunitateetako buru diren kazikeekin egin zuten lehen bilera gogoan du Olga Leiciagak: “Haien arazo eta zailtasun



Ezkerretik hasita, hurrenez hurren: Itati Brizuela, Ana María Macchi, Damián Rodríguez eta Olga Leiciaga.

nagusiak kontatu zizkiguten". Hortik aurrera, guaraniek egunerokoan topatzen dituzten oztopoei aurre egiteko laguntza eskaintzea izan da Eusko Etxearen lan ildo nagusietako bat.

Hainbat borroka fronte

Chapa i mbya-guarani komunitateko kazikea da Damián Rodríguez. Haien egungo errealitatearen laburpena egin du: "Gure kulturari eta antzinako jakinduriari eusten diogu, baina gero eta zailtasun handiagoak ditugu. Bizirauteko, gurea ez den sistema batera egokitu behar izan dugu. Gure arbasoek, baliabide ekonomiko guztiak eskura zituzten. Orain oihana suntsitzen ari dira, eta ibaia ez dago arrainik, presak egin dituztelako. Jatekoa erosi egin behar dugu, eta horretarako, komunitatetik kanpo lan egitera behartuta gaude". Lurrarena da komunitateen arazo handiena. Gaur egun, jabe pribatuenak edo gobernuarenak diren lurretan bizi dira.

Lur horiek lantzeko formazioa eskaintzea izan da Eusko Etxea elkarteko kideen beste asmoetako bat. Aitzitik, traba handiak topatu dituzte. Adibidez, komunitate askotan ez dute ur korrontetik, eta horrek baratzea lantzea zaildu

egiten du. Argindarrak ere ez dute, kasu askotan. "Lurjabeentzat traba besterik ez dira. Inolako zerbitzurik ez ematea, lurretatik alde egitera behartzeko modua da", salatu du Ana María Macchik. Baieztatu du, estatu eta probintzia mailako agintariek badutela egoera prekariorio horien berri. Baina ez dituztela neurri egokiak hartzen: "Lurra, erremintak, formazioa eta garatzeko tresnak eskaini beharrean, dirua ematen diete".

Horrek are gehiago korapilatzen du egoera. Alde batetik, guarani komunitateetako jende asko diru-laguntza horiekin konformatu egiten delako. "Diru-laguntzei esker bizitzera ohitzen dira, eta alde batera uzten dituzte beste jarduerak", zehaztu du Macchik: "Komunitate gehienetan, adibidez, jada ez dute artisautzarik egiten". Gainera, boterean dauden politikariekiko mendekotasuna sortzen du diru-laguntzen ezinbesteko beharrak. Bidegabekeriaren aurka bat egiteko aldarria luzatu du Olga Leiciagak. Guaranien protestetan eta mobilizazioetan parte hartu izan dute Eusko Etxea elkarteko kideek. "Buenos Airesko komunikabideen arreta erakarri behar dugu. Horrek mugiarazten ditu politikaririk", nabarmendu du Leiciagak.

Aurrerapenak hezkuntzan

Eusko Etxea elkarteko kideen ustez, hezkuntza da komunitateen egoera iraultzeko tresna nagusia. Arlo horretan egin dituzte lorpenik handienak. 2011n, eskola txiki bat eraiki zuten *Tavá Miri* komunitatean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintako dohaintzari esker. Eskolak kultur arteko elkartruke interesgarria sortu duela azpimarratu du Ana María Macchik: "Eskolatik gertu bizi zen gainerako jendeak ere bertara bidaltzen ditu haurrak. Gaur egun, ikasleek erdia zuriak edo mestizoak dira". Guarani komunitateak ondo hartu ditu beste jatorrietako haurrak. *Chapa i* komunitateko Itati Brizuelak adierazi du ez dela berdina gertatzen, haiek haurrak ikastetxe arruntetara bidaltzen dituztenean: "Diskriminazio ikaragarria jasaten dute, ospitaleetan eta beste leku askotan bezala".

Eskola elebidunak dira guaranien komunitateetan daudenak, eta guaranien ohiturak eta kultura lantzen dituzte. Aurrera pauso hori lortu izan da, komunitateetako zenbait gaztek irakasle ikasketak egin ahal izan dituztelako. "Abokatuak ere nahi genituzke, gure eskubideak defendatzeko", aldarrikatu du Itati Brizuelak: "Eta medikuak, gure jendea artatzeko". Brizuela erizaina da, eta Posadas hiriko ospitalean aritu da lanean. Guarani komunitateetako osasun egoera kezkarria dela uste du: "Garai batean gure artean ez ziren gaixotasunak agertzen ari dira: tuberkulosia, H1Ba (*Haemophilus Influenzae type B txertoa*) eta abar".

Hezkuntzan laguntzeko beste ekimen bat ere aurrera eraman du Corpuseko Eusko Etxeak. Eskola batean zeukatzen Mbya-guarani-gaztelania hiztegi bakarraren kopiak egin, eta gainerako ikastetxeetan banatu dituzte. Antzinako hizkuntzari eusteko ahalegin handia egiten dute Misionesko mbya-guarani komunitateek. Hori dela eta, interes handiz hartu dute, Corpuseko Eusko Etxearen bidez, Euskal Herriari buruz heldu zaien informazioa. "Batez ere, euskara hizkuntza eta hari eusteko lana da txunditzen dituen", azaldu du Olga Leiciagak. Milaka kilometrotako distantzia dago Euskal Herriaren eta Misionesko guarani komunitateen artean. Hala ere, harreman natural bat sortzea lortu du Corpuseko Eusko Etxeak. ■

Arabako euskalgintza

LEHEN ALDIZ ELKARTU DIRA ZAZPI KUADRILLATAKO EUSKALTZALE GAZTEAK

60 arabar gazte euskaltzale elkartu ziren urtarrilaren 28an Gasteizen. Topaguneak zirikatzaile lana egin zuen, elkar ezagutzen ez zuten euskaltzaleek topo egin zezaten. Helburua xumea zen, elkartzea eta gozatzea. Añanakoak salbu, gainerako kuadrilla guztietako ordezkariak izan ziren.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK:TOPAGUNEA

Unai Viana Topaguneko da, Gorbeialdeko Mintzalaguneko koordinatzailea. Izarran (Urkabustaiz) bizi da eta Topaguneko langilea izateaz gain gazte mugimenduetako saltsetan dabil. Vianak hanka bat batean eta bestea bestean izateak lagundu du antolaketa. Topaguneak Gasteizko egun-pasa babestu zuen eta Viana eta bi-hiru lagun bidez, poliki-poliki, Araba osoko gazteen erreferentziak bildu eta haiei amua botatzen ibili ziren.

Urtarrilaren 28ko goizean, Arabako txoko guztietatik joandako gazteek haien herrietan euskara bultzatzeko egiten dituzten ekintzak aurkeztu zituzten. Ondoren, mintzodromoa egin zuten. Hori guztia Oihaneder Euskararen Etxean. Tripa zorriak isiltzera alboan dagoen gaztetxera joan ziren, eta tabernako barrari eta musikari esker egun-pasa luzatu zen.

Unai Vianak adierazi digunez, helburu nagusia gazteak elkartzea eta elkarren berri izatea zen. Ez zuten asmo handirik irudikatu, ezta etorkizunera begirako

planik egin ere. Abentura moduan definitu du urtarrilaren 28koa: “Helburu finkorik ez genuenez, ez geneukan ezer galtzeko, beraz beldurrik ere ez. Ondo ateratzen bazen ederki eta gaizki ateratzen bazen, bada kito”. Oso pozik dira antolatzaileak, uste baino jende gehiago, giro polita eta taldeen aurkezpen interesgarri eta alaiak izan zirelako.

Arabaren herriak oso txikiak dira eta euskalgintzan ofizialki ezagutzen ditugun euskara elkarte modukoak gutxi daude. Geu elkarteak, Oihaneder Euskararen Etxekoak, Zizta Euskara Taldekoak eta Euskararen Kultur Elkarteak joan ziren izen horren pean, nolabait esatearren. Gainerakoan, gazte mugimendu eta gazte asanbladatakoak, eta gazte taldetako kideak bildu ziren. Institutuetako euskara batzordeetako kideak ere joan ziren haien berri ematera. 60 euskaltzaleak kontuan hartuta, gutxi ziren 25 urtetik gorakoak. Vianak pena bat dauka, Añana kuadrillatik inor agertu ez izana. Hurrengo aldirik bada,

erronketako bat horixe izango da, Añanako gazteei “inbidia” ematea.

Ezer baino lehen, gozatu

Gasteizko topaketek dibertigarriak izatea garrantzitsua zela azpimarratu du Vianak. Gozatzea erdigunean jarri izana azaltzeko eskatu diogu: “Denetarik behar dugu, momentu batzuetan modu serioak behar dira lanerako. Topaketa berriz, espresuki egin dugu jendea hurbilarazteko, gustura egoteko, gazteok geure indarra sentitzeko. Ez genuen inor beldurtu edo lokartu nahi. Jendea lasai etortzea nahi genuen, inolako konpromisorik gabe”.

Topaketek izenburua zuten: *Arabarra, gaztea eta euskaltzalea. Bai, eta zer?* Norbait zirikatzeke erabili duten izenburu hori galdetu diogu Izarrako gazteari: “Harrotasun puntua erakutsi nahi genuen. Gu harro gaude arabarrak izateaz, baina badirudi kanpotik Araba ez dela horrenbeste lotzen euskararekin edo euskaltzaletasunarekin. Urteak



dira errealitatea aldatzen ari dela, guk, arabarrok, ikusten dugu aldaketa, eta askotan galdetzen dut nola ez duzuen kanpotik aldaketa sumatzen. Dena dela, izenburua ez da inori ezer aurpegiatze-ko, zirika sanoa baino ez da”.

Urtarrilaren 28a eta gero zer?

Balorazioen garaia da. Topaguneak be-rea egin beharko du, eta Gasteizen el-

kartu ziren 60 lagunek ere bai. Hala ere, Vianaren lehen kolpeko balorazioa oso ona da eta aurrera begira zerbait egite-ko modua sumatzen du. Duela hilabete batzuk ez bezala, Arabako kuadrilletako gazteen telefono zenbaki ugari du orain. Elkar ezagutu dute. “Pauso handia eman dugu, topaketa egin dugu, orain pauso txikiak ematen hastea ederra litzateke. Ezin dugu giroa hozten utzi” . ■

Gazteek, euskara bultzatzeko antolatzen dituzten ekimenak azaldu zituzten bata bestearen atzetik; batzuk modu klasikoagoan (goian ezkerretik lehena) eta beste batzuk originalago, alegia gitarra joz eta kantatuz. Goizeko saioetan eta gaztetxeko bazkarian 60 lagun elkartu ziren. Arratsaldean, kontzertuen aitzakian jende gehiago gerturatu zen.

B E R P A
T S O L K
A G U T I
K Z I A K

ANDONI EGAÑA
MAIALEN LUJANBIO
IKER ZUBELDIA
UNAI AGIRRE

Gaijartzailea:
AITOR MENDILUZE

Otsailaren 17an,
19:00etan **Basque Culinary Center**en

Ondoren gutizia bereziz osatutako luntx-afaria

20 €

23:30etan autobusa **doan** Hernanira bueltatzeko

SARRERAK SALGAI
HERNANI **Kronika**
943 33 08 99, **Kixkal**,
Aralar
ASTIGARRAGA **Ikatza**
EREROTZU **Irrintzi**
GOIZUETA **Amaita**
kafetegia

ANTOLATZAILEA
Kronika

LAGUNTZAILEA
INSALUS

Sofia de Esteban Lizarbe [Gorra da jaiotzez]

“Beharturik gaude bizitza oso ongi antolatzerara; zaila zaigu oraina bizitzea”

Sofia de Esteban Lizarbe naiz, 44 urteko iruindarra. ASORNA, Nafarroako Pertsona Gorren Elkarteko koordinatzaile gisa egiten dut lan. Sortzez naiz gorra, baina ez gor-mutua askok uste duen bezala.

Gure komunitatea oso plurala da, entzumen galera maila eta ahozko komunikaziorako gaitasun ezberdinak ditugu. Oso errotuta dago gor-mutu kontzeptua, baina jendarteak izendapen hori erabiltzeari utzi behar lioke. Denak zaku berean sartzea delako, eta ahotsa erabiltzeko gai direnei haiek ez duten gabezia bat atxikitzen dielako.

Komunitate bat gara; gure hizkuntza, kultura eta ohiturak ditugu. Nire lagun gehienak gorrak dira, nire bikotekidea bezalaxe. Bi seme-alaba ditugu eta haiek ez dute entzumen arazorik, baina etxeko hizkuntza zeinu bidezkoa da, hori izan baita haien ama-hizkuntza. Hala ere ez ditugu gure interprete moduan erabiltzen. Senarra eta biok pertsona autonomoak gara eta ez dugu seme-alaben bizitza gure beharretara moldatu nahi.

Hainbat urtez ibili naiz zeinu-mintzaira irakasten. Beste hizkuntzekin duen alde bakarra kanala da, soinu bidezkoa beharrean bisuala izatea. Gainerakoan beste hizkuntza guztiak bezalakoa da, berezko ezaugarriak ditu, lexikoa, gramatika arauak... baita dia-

lektoak ere! Ez da berdin hitz egiten hemen eta Huelvan, testuinguruari lotutako ezaugarriak ditu, hizkuntza bizia den seinale.

Azken urteetan gure eskubideen alde ari naiz borrokan. Pertsona gorrei eta familiei orotariko laguntza edo asistentzia ematen eta kanpora begira sentsibilizazio eta zabalkunde lanetan.

Eskubide asko urratzen zaizkigu. Espainiako Gobernuak, espainiar eta katalan zeinu hizkuntzak aitortzen dituen 27/2007 Legea onartu zuen –euskal zeinu mintzaira ez du jasotzen– baina oinarri-oinarrizkoa soilik betetzen da, gure beharretatik oso urrun.

Egia da teknologia berriei esker aurrerapausoak eman direla. Gehienok etxea egokitua dugu eta tinbrea edota iratzargailua, esaterako, argi bidezkoak dira. SVisual plataforma ere oso baliagarria zaigu, 24 orduko interprete zerbitzua eskaintzen baitu Internet bidez.

Egunerokoan, baina, beti saiatzen naiz interprete berarekin ibiltzen, konfiantzazko harremana sortzen delako, eta badakidalako nahi dudana ongi adieraziko duela, eta alderantziz. Haien lana



Eider Madina Berasategi

@xaukenaxauk

ARGAZKIA: EIDER MADINA



Sofia de Esteban Svisual plataformako zeinu hizkera zerbitzuak erabiltzen.

nahitaezkoa da gure bizitzetan. Gauza xeheak egiteko laguntzarik gabe moldatzen naiz, baina larrialdi, espezialista, abokatu edota bileretara joateko, zerbitzua eskatzen dut.

Badago informazioa, baina ezagutza gutxi. Ikusezinak gara. Lehen begiratuan ez zaigu deus antzematen eta erreakzioak orotarikoak izaten dira. Badaude elkarrizketa izaten saiatzen direnak, eta moldatu ohi gara; beste askok, ordea, ez dakite nola jokatu eta “ai, barkatu” esanda alde egiten dute. Gogorra izan daiteke, ahaldunduta ez bazaude, batik bat.

Formakuntza, aisialdi eta kultura arloan ere oso mugatuta gaude, eskaintza urria delako. Espresuki zerbait ikusteko aurrez planifikatu behar dugu, interprettea eskatzeko.

Ahozko hizkuntza bultzatzeko joera egon da; gurea ez da gehigarri gisa ikusi, ezta baliabide gisa ere; eta beraz, ez sustatzeaz gain, gutxietsi egin da, sarri. Audifonoak, inplanteak edo logopedak lehenesten dira; eta guri tresna horiek oso baliagarriak iruditzen zaizkigu. Baina besteari garrantzirik kendu gabe. ■

TXERRI HITZA IRAINA EZ DENEAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazuastabarrena

Jerusalem, 1161eko uda. Amalariko I.a errege kristauren seme Balduin jaio zen. Lehen gurutzadan kristauek konkistatu eta gero, musulmanen lurraldearen bihotzean, Jerusalemgo Erresuma ez zen toki baketsua, are gutxiago Amalarikok musulmanen aurka izandako jarrera erasokorraren ondoren. Balduin aitaren koroa janzteko hezi zuten, guduetan gurutzatuen buru izateko, gotorlekuak altxatzeko, setioei eusteko eta intriga politikoei aurre egiteko. Gerora Jerusalemgo kantziler izango zen Gilen Tirokoa arduratu zen printzearen hezkuntzaz. Eta Gilen izan zen Balduin gaixorik zegoela konturatzen lehena; gorteko medikuek baino lehen, oinordekoak 9 urte zituela, ikusi zuen legenarra zuela.

Berehala hilko zela esan nahi zuen horrek XII. mendean. Gainera, gorputzeko gaitza izateaz gain, legenarra arimaren gaixotasuntzat ere jotzen zuten, gaixoak eta haren aurrekoek egindako bekaturen zigortzat. Amalariko aita mutikoak 13 urte zituela hil zen, eta Balduin IV.a Jerusalemgo seigarren errege izendatu zuten, erregeordetzaren babesean. Inork ez zuen uste tronuan luze eseriko zenik, eta errege gaixoa ordezkatzeko hautagaiei jaramon gehiago egin zieten gortean, etorkizun hurbileko trikimalu politikoetan ondo kokatuta egoteko. Oker zeuden. Handik bi urtera, 15 urte-



Jerusalemgo Balduin IV.a erregea 'Zeruetako erresuma' (2005) filmean.

SCOTT FREE PRODUCTIONS

rekin, Balduin IV.a adin nagusitasunera iritsi zen eta boterea eskuratu zuen.

Saladino ere oker zegoen. Sultan handiak errege gaztea gutxietsi zuen. 27.000 mamelukoz osatutako armada-buru, Jerusalem eraso zion. Baina Balduinek 375 gurutzatu eta 4.000 soldaduko infanteria bildu zituen, Saladini atzetik eraso zion eta sultan handia mendean hartu zuen Montsigardeko gudu. Saladinok beste hogeitau urte behar zituen hiria konkistatzeko.

Balduin IV.a lehenago hil zen, 1185eko martxoaren 16an, 24 urte zituela, itsua eta oinak eta eskuak mutilatuta. Aur-

pegia erabat desitxuratuta zeukan eta zilarrezko maskara bat erabili zuen azken urteetan. Horregatik esaten zioten "errege txerria", eta "legenduna" edo "madarikatua". Baina ez zentzu peiorati-boan. Balduin ez zen agintari oldarkorra izan, integratzailea baizik. Ibn Yubair geografo andalustarrak bere kroniketan jaso zuenez, musulmanak seguru eta bakean bizi ziren haren agindupean. Eta Isapahango imamak hitz hauek eskaini zizkion: "Gazte legendun hark bere agintea errespetatuarazi zuen printze handien moduan, Davidek eta Salomonek bezalaxe". ■



MOESGAARD MUSEUM

3.500 urteko bitxitegia

Danimarkako Moesgaard Museoko arkeologo talde batek duela 3.500 urteko bitxigintza lantegi baten aztarnak aurkitu ditu Failaka uhartean, Kuwaiteko kostaldean, Mesopotamiako merkataritza sarean irla txikiak izan zuen garrantziaren seinale.

K.a. 2100. urtetik aurrera, Omango mendietan erauzten zen kobreaken pa-

sabide izan zen. Baina K.a. 1700etik Zirepreko kobre merkeagoak uhartearen gainbehera eragin zuen. Eskasia nagusitu zen, hiriak eta jauregiak abandonatu zituzten, eta erregeen hilobiak arpilatu. Handik mende batera merkataritza jarduera berriro suspertu zen, eta garai hartakoak dira aurkitu berri dituzten kornalinazko eta jadedzko piezak. ■

Aza jendearen urtea



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Aza jan eta aza jan. Aurtengo neguan sekula baino aza gehiago jaten ari gara etxean. Gero eta gehiago gustatzen zait niri. Garai batean, umetan, egosi-egosi eginda ateratzen ziguten aza mahaira. Horrela denean zabaltzen duen kiratsak berak atzera eragiten zidan, zenbaitetan baita goragalea ere. Horri gehitzen badiogu aitonaren esaera: "Aza? Kamionkak jan ditut nik", ez genuen oso gustuko etxean. Orain paderan erregosita, gardoistu antzera jaten dut, eta zale amorratu bihurtua naiz. Egia da, aza horrela erretzeko sukaldean ekonomika izateak asko errazten du emaitza borobiltzea. Aza jendearen sendiko edozein aldea halaxe prestatzen dut: aza (*Brassica oleracea* var. *capitata*), azalorea (*Brassica oleracea* var. *botrytis*), brusela aza (*Brassica oleracea* var. *gemmifera*), brokolia (*Brassica oleracea* var. *italyca*), gailago aza edo kalea (*Brassica oleracea* var. *acephala*), arbiaza (*Brassica oleracea* var. *gongylodes*), aza txinatarrak



RASBAK-CC BY SA

Aza (*Brassica oleracea* var. *capitata*).

(*Brassica oleracea* var. *pekinensis*)...

Omenaldi asko merezi du aza jendeak. Babak adina, *Vicia faba*. Aza eta baba, baba eta aza. Zein baino zein hobea negu beltza gozatzeko; a zer uztarrak! Makina bat gose eraman du aurrean hartuta. Eta orain argi eta garbi dakigu: osasunerako oso onak dira, oso!

Aurtengo urte honen hasiera hotz eta gogorak, garai batekoak nolakoak izango ziren ekarri dit gogora. Eta sekula ez dut ahaztuko umetako gure herriko irudi bat: herriko kaskoan dagoen Gaz-

tañaga baserriaren azpiko aldeko soroa, soroka aza elurpean. "Betor elurra" lasa dio aza bete soroa etxe ondoan duenak...

Urtearen hasiera hotzak azak ere gozatu ditu. Jakina da toki hotzetako azak gozoagoak dira, ez alferrik aza onenak Oletakoak direla esan ohi da. Hangoa ez bada, inguruko aza eskuera izango duzu, dastatu eta sumatuko duzu, hotz hauen ondoren gozo-gozo askoa.

Urteari hasiera ezin hobea eman diogu; izan ere, aurtengo urte hau aza jendearen urtea izendatua da. Jan azatik! ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Iaz indaba gorri hazia hiritan erein behar izan nuen. Lehenengo bietan urtez urte izandako indabaz baliatu izan nintzen, eta kale. Azkenik, hazi berria erostea erabaki nuen, eta primeran. Indaba haziek denborarekin indarra galtzen dute?

Juan de Atxirika (Murueta)

Kaixo Juan. Indaba edo babarrun haziak (*Phaseolus vulgaris*) hazi guztiak bezala berritu egin behar dira. Urtea



ARDO BELTZ-CC BY SA

joan eta urtea etorri etxearen artean soilik gurutzatu badaitezke, pixkanaka ahultzen joango dira. Ez da normala, hala ere, urte batean erabat zapuztea... Beste arazoren bat izan ote daitekeen susmoa hartzen diot.

Horrenbestez, urtero ez, baina biz edo hiruz behin kanpotik ekarri hazia eta bostetik edo lautik bateko proportzioan nahastu etxeokari. Landareen ezaugarriak nahastu egingo dira eta indartu. Gure amona Joxepa zenak zioen beti "urak ekarritako" hazia gehitzeko. Go-

rako ohitutako hazia zailduagoa dago, baldintza okerra-goetara jarria; eta hobeagoetara, beheara eramanez gero errazago emango du.



Durungaldeko nekazariak Berton Bertokoa ekimenari babesa adierazi zioten unea.

BIDAZI ELKARTEA

Kanpaina abian, bertako produktu freskoak eskaintzeko



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Agroekologia eta auzolanaren kultura oinarri hartuta, mugaz gaindiko Bidasoaldeko herritarron gunea eraikitzea zen Bidaziren helburua”. Oier Fuentes elkarteak kidearen hitzak dira, Hamai-ka Tebistak egin zion elkarrizketan jasoak. Txingudiko, Bortzirietako, Xarretako, Malerrekako eta Baztango herritar nahiz ekoizleak biltzen ditu Bidazi elkarteak, kontsumo eredu alternatiboaren alde: solidarioa, ekologikoa, arduratsua, bertakoa, kontzientea eta transformatzailea.

Denda elkargune

Bidasoaldeko hainbat familiek osatutako kontsumo talde moduan urteak zeramatzan Bidazik. 2014an Lesakako Alkaiaga auzoan elkartearen lokala jarri zuten martxan.

Zonaldeko ekoizleen produktu ekologikoak (edo ekologikora bidean doazena) dituzte eskuragarri azoka horretan, baina denda hutsa izatetik harago doa Bidaziren gunea: ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanak bultzatzea bilatzen du, baita kontsumitzaile-

le-kontsumitzaile eta ekoizle-ekoizle harremanak ere. 150 kidetik gora ditu gaur egun elkarteak.

Kontsumo eta ekoizpen arduratsuen gaineko formazio lanean ere badabil Bidazi. Hitzaldi, aurkezpen, tailer nahiz ikastaro ugari antolatu dituzte urte hauetan jendartearen sentsibilizazioa bultzatzeko.

Eskaintza hobetzeko, laguntza eskaera

Azokako zerbitzua hobetzeko asmoz, crowdfunding kanpaina martxan jarri berri du elkarteak. Zein da helburua? Bada, tokiko produktu freskoen aukera zabaltzeko bi hozkailu lortzea. Hozkailu bakoitza jartzeak 3.500 euroko kostua izanen luke, eta diru kantitate horretan jarri dute lortu beharreko gutxienekoa.

Urtarrilaren 25ean abiatu du diru bilketa Bidazik, eta 40 egun iraungo du, martxoaren 5era bitartean. Proiektuari bultzada eman nahi dion orok egin dezake bere ekarpena goteo.cc/bidazi webgunean. Trukean, zonaldeko produktuak jasoko ditu opari. ■

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Otsailak 11: Lapuebla de Labarca Uzta berriaren aurkezpena

Bisitaldi gidatuak upeltegietara. Mahatsaren inguruko produktuak erakutsi eta dastatzea. Mahastiko lanak ikusgai, lehengoak eta oraingoak.

Otsailak 11: Markina-Xemein Azoka

Zuhaitz, landare eta lanabesen azoka.

Otsailak 19: Mungia Abeltzaintza azoka

Behi, ardi, zaldi eta ahuntzazienda. Nekazaritzako tresnak eta makineria erosgai.

Otsailak 26: Espejo Tokiko frutarbolen banaketa

Euskal Herriko Hazien Sareak tokiko frutarbolen zaindari izatera gonbidatzen zaitu. 9:30etik 11:00etara Zaindarien Topaketa egingo da Gizarte-Zentroan. 11:00etatik 15:00etara, berriz, frutarbolen banaketa, elkartearen mintegian, Bergondan.

Martxoak 4 eta 5: Igorre Basogintza jardunaldia

“Basogintza eredu berriak, etorkizuneko politika publikoak eta jendartearen ahalduztzea” izenburupean, 3. jardunaldiak egingo dituzte. Martxoaren 4an, 9:30ean hasita aurkezpen laburrak egingo dituzte, Kultur Etxean. Arratsaldean *Gutik Zura* filma emango dute. Martxoaren 5ean Muruara ibilaldi gidatua egingo dute.

ZURE HERRIKO AZOKAREN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera
idatzi edo www.bizibaratzea.eus
webgunean bertan, oso erraz.

Agenda osoa noiznahi ikusteko:
www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

ESZEPTIZISMOAREN POLTRONATIK

1

Pecozza United taldearen lan berria: Eszeptizismoaren poltronatik

Lehenengo diskoaren harrera hotza eta gero, badirudi "Eszeptizismoaren poltronatik" lanarekin ere ez dela aberastuko Irungo hirukotea. Erreakzionario izateraino kritikoak, heteropatriarkatuaren ereduak erreproduzitzen dituzte, taldekide guztiak gizonetakoak diren heinean. Aurreko diskoko "Urkijo de Puta" bezalako hit-ei esker tirano arrotzen zentsura pairatzeko itxaropen

apurra lausotu zaie, eta beste formula batzuk bilatu behar izan dituzte lan fresko honetan arrakastaren gozoa dastatzen saiatzeko. Beste behin autoekoizpenaren bidea hartu dute, batik bat inork haietaz ezer jakin nahi izan ez duelako. 14 minutu pasatxoko poltronerismo gordina; ea zozketan zorterik duzuen!



Eragile hau hobeto ezagutzeko:

PECOZZA UNITED

PECOZZA UNITED TALDEA

Tel 685 783 470

pecozzaunited@gmail.com

#kulturgintza
#musika
#autoekoizpena

Otsaileko sariak

1



Izaro Gorostidiren
Mariametsetan poema liburua
4 ale

2




Pecozza United taldearen diskoa
5 KD

3



AEK. Korrikaren 20. edizioko kamisetak
5 kamiseta

4



Intxortako frontera bisita gidatua
3 pertsonarentzako, 4 sari

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

Abiadura biziko aktualitateari begiratu lasai



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Urtea hastearrekin batera eta 2016ko urtarrileko estiloari jarraituz, pasa den urteari begira jarri, aztertu eta datorrenari zer begirekin so egin asmatzen ahalegindu dira ARGIAko hauek *Aktualitatearen Gakoak* kazetaritza liburuxkan. Ez profeta izateko desirarekin, 2017an izango diren mugimenduak ulertu eta irakurleari azaldu nahirik seguruago.

Arnas luzeko kazetaritza bezala definitu du Estitxu Eizagirrek sarrera-testuan urtean behingo argitalpena. Iritziak, analisiak, berreskuratutako erreportajeak, elkarrizketak eta askoz gehiago dira orri hauek betetzen dituzten edukiak; batzuk 2016an publikatzen joan garenak, eta beste batzuk urtean zehar gertatzen joan denari ikuspegi globalago batetik begiratu nahian egingakoak, labetik atera berriak. Denak irakurketa lasai edo sakonago baterako pentsatuta. Tarteka liburuxka hartu eta orrialdeetan aurrera-atzera ibiltzeko moduan; pilulaka.

Lau ataletan banatuta dago: Argitalpena sei argazkik irekitzen dute. Pasa den urteko astekariak ireki dituzten argazki guztietatik sei izan dira aukeratuak *Sei begirada 2016ari* atala osatzeko. Jarraian topatuko ditugu *Kronikak*, gertatutakoari begira jartzen gaituztenak, pil-pilean egon diren eta dauden hainbat gairen inguruan. Baina aurretik esan bezala, ez gara atzera erreparatuta bakarrik geratuko. *Joerak* hirugarren atalean, izenak ondo adierazten



duen bezala, datozen urteetan etorriko denaz, gai bakoitzak norantz joko duen edo zer erronka dituzten aurreratzeko da. Eta bukatzen da *Argiaren Onenarekin*. Astekarian, *Larrunen*, Interneten zein blogetan publikatu diren zenbait edukiren bilduma. Zenbat irakurgai geratu zaizkigu urtean zehar bide bazterrean, gero leitzeko asmo hutsetan? Horiek jasotzea izan dugu helburu.

Egunerokotasunaren abiadura biziari ederra baita tarteka bederen freno botatzea. Aktualitatea lasai ere irakur baitaiteke. ■

“(ARGIAkoa egiteko arrazoia) Hartu-eman horizontala izan delako eta horrela izatea nahi dudalako”

Haizea,
ARGIAkoa

Euskal Irratiekin formazio saioa

Antxeta Irratia, Gure Irratia, Irulegi-ko Irratia eta Xiberoko Botza irratietako kide bana etorri zitzaigun bisitan. ARGIAren antolakuntza ezagutzea izan zuen topaketak helburu: nola antolatzen garen lanean, azken urteetan langileen batzarrak landu izan dituen berrikuntza prozesuak...

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenean, 8:00etan.
- **Euskal Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostegunetan, 10:30ean.



Urtarrileko sarituak

- **Bilau Taldearen Diska:** Aintzane Linaza (Gasteiz), Oscar Sanz De Acedo (Iruñea), Rafael Larrañaga (Azpeitia), Joseba Barandiaran (Bilbo)
- **Ekologistak Martxanaren Materiala:** Patxi Azkarate (Durango), Ana Gonzalez De Txabarri (Donostia), Mendaroko Liburutegia.
- **Talaios Koop.-En Etxekaria:** Aitor Servier (Azkaine), M. Angeles Azpiroz (Barañain), Itziar Garcia (Oñati), Jose Mari Etxezarreta (Donostia)
- **Bertoaren Haria Hernanin:** Maria Rosario Azpiroz (Tolosa)

Joxe Austin Arrieta, idazlea

“ARMA HILGARRIA IZAN DAITEKE INTROSPEKZIOA”

Iluna irudi luke, izenburutik beretik hasirik. *Estalien Gradora* (Txalaparta, 2016). Ordea, aski dira hiruzpalau izpi irakurketaren bidea argiz bete dakigun, gure poesia goren gradora jaso ohi digun poeta fin lumazorrotzaren sormen-lanaz goza gaitezen.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIA: ZALDI ERO

“Azken hatsa huela, bertsorik sakonena... inoiz esan ezin diren estalitako egien oihurik bortitzena, bortitzena!” [Irri-barrez, ahapeka kantari]. Nire kasuan, ordea, aurkezpenean esan nuen bezala, ez da oihurik bortitzena, hauskorrena bezain euskorrena baizik.

Estalitako egiak dira *Estalien Gradora*-koak?

Hor nonbait. Estalitako egia horietara hurbiltze bat bai, behintzat, egia horiek ikertu nahia edo. Xalbadorren omenezko Xabier Leteren poema-kanta ederraren oihartzuna dago izenburuan. Baita Etxepareren harako “goren gradora” harena ere: hemen “beheren gradora”-edo esatea egokiago litzatekeen arren, agian... Bilduma bat da, azken 15-

20 urteotan barrena egindako hainbat poema solterena, edo ez hain solterena, batzuk aski aurre-josiak baitzeuden; guztiak *Estalien Gradora* iragaziak, hori bai.

Estalien Gradora, edo *Stalingradora*?

Egokia iruditu zitzaidan Stalingradoko bataila historikoa metaforatzat erabiltzea. Gogoratzen naiz garai hartan Vasili Grossmanen *Bizitza eta Patua* irakurtzen ari nintzela, eta hura erreferentziatzen hartuta asmatu nituela liburuan ageri diren bi txotxongilo edo pertsonaia xeble bezain serio horiek, Niketz eta Edgar, Von Paulusen VI. Armadako kaporal zaharra eta lotinant gaztea. Nire bizitzako seigarren hamarkadaren metafora da VI. armada hori. Bi *alter ego*

horiek erabili nituen, neure idazlanetan sarritan egin dudana berriz egiteko: aurretik idatzitako nire testuen autokritika, sakontasuneranzko gogoeta bati ekinez, edo berrekinez, haietan barrena.

Mikel Antzak poema-antologia anteztutat jo du *Estalien Gradora*. Leitzen ari nintzela, antezlana ere izan zitekeela pentsatu nuen, tartean poema ederrez hornitua.

Zaila baita generoen arteko mugak zedarriztatzea, gaur egun ez ezik, baita aspaldidanik ere -XIX. mendetik hona bai behintzat, nik uste-. Batzuetan nahigabe sortzen da nahasketa. Poesia zer da, lirikotasuna besterik ez? Antzerkia zer dugu, dialektika hutsa? Balekoa iruditzen zait Mikel Antzaren formulazioa:



“poema-antologia antzeztua”, liburuak dituen hiru parteen arteko joscura antzerki modura emana baitago: bi *alter ego* horien arteko dialektika da liburuaren “motorra”. “Antologia” hitzaren orde, nik “bilduma” esango nuke soilik, hori bai.

Zure ama ei dago liburuaren ernamui-netan.

Unheimlich sentsazioa, oso sentsazio korapilatsu eta mingarria dago liburu honen jatorrian. *Unheimlich*, alegia, kontzeptu freudiar oso inportante bat, gutxi gorabehera eta oso zabarki esanda: helduaroan edo zahartzaroan zure haurtzaroko leku batera itzultzen zarenean sentitu ohi duzun sentsazio delikueszente hori, nostalgiatik baino ego-

nezinetik areago duena, ezagutuaren ezagutuz arrotzagotu egiten zaituen inguruabar zahar-berritu batekiko talka... Ulertzen?

Ez, zeharo.

Nik ere ez, horra! Nire kasuan, dena den, *unheimlich* horixe darie, liburuaren erdi aldera amari eskainitako poemei. San Bizenteko elizako sakristia, iceberg bat nire oroimenean. Eta ni hantxe, nire V. eta VI. “armadetan”, amaren gurpildun aulkari eutsiz, amaren mezaren aurretiko eta ondorengo berbaldi xamur zorrotzei adi –markineraz eta mutrikueraz–, baina meza entzuten. Eta, batzuetan, mezaren ostean, hango erreto-rearekin berriketan; liburuko poeman ageri direnak “pentsatu bai, baina esan

ez” nizkion arren, Buñuelen pelikula-ko danborrak nire burmuinean durundi. Baita orain hain famatu bihurtu den apaiz pederasta horrekin ere. *Unheimlich*-agorik, nekez... Poema horiek oso dira *fundazionalak* liburu honetan. *Estalien Gradora* maionesa moduko bat da, gorringo-zuringo horietatik abiatua. Hori bai, aizu: maionesa eskuz egina da, ez mini-pimerrez.

Liburua irakurririk, literaturaren eta bitzizaren zentzuari buruzko galdera betikoak egiten ari zarela dirudi.

Adinean oso aurrera noa. Inoiz egitekotan, oraintxe egin beharko da delako balantzea, ezta? Ez dakit, halere, “estalien gradora” jaitsi naizen ala ez. Momentu batzuetan baietz iruditzen zait: hor

badira zenbait flash; beste batzuetan, berriz, lainoa sartzen da ostera, eta ilunpetan naiz berrero, egin dudana saioak merezi ote duen ez dakidala.

Eta hortxe, liburuetako orrialdeetan berrera, Niketz eta Edgar poesiaren definizio bila.

Eta definizio kontraesankorrak emanez. Poeta guztiok egiten dugula uste dut, eta narratzaile guztiok ere bai. Badirudi ezin garelako libratu geure burua eta geure lanaren ezaugarriak liburu guztietan eta bakoitzean justifikatu beharraz. “Berbatze Enea” atalean moztu egin behar izan nituen testuak, hango nire pertsonaiek –Talaiaariak, Adituak, Txerpolariak, eta abarrek–, poesiaren definizio bila nork berea botatzen baitzuen: bata errealismo sozialistaren alde, bestea erlijioaren isiltasunean barna sakontzearen alde... Etengabea da liburuan barna darabilten eztabaida, harik eta isiltzeko agintzen diedan arte. Nire barruko mamuak isilarazteko enegarren saiakeratzat ere defini liteke, beharbada, *Estalien Gradora*.

“Zuhandor”, hitz giltza duzu liburu honetan.

“Ez zara gauza inoren kontra / errebelatzeko gogor; / amorrusutan bizirik ere / ez duzu mindu nahi inor; / zeure burua karraskarazten / duzu ernegu-zuhandor, / zeure kontrako zeure xahupena / bilatuz isil ta gotor”. Gandiagaren poema horretan, eta beste askotan, garbi ageri da gogo-jardunak dakarkion sufrimendua. Arma hilgarria ere izan baitaiteke introspektzioa; gatazkatsua, bederen, bai, gure kultur tradizio kristauan. “Ni ere zuhandor-tarra nauk!”, esan nion neure buruari, deblauki, poema hura irakurri nuen estreinako aldian. Hiztegiaren begiratu ere bai, berehala, hitzaren esanahia. Arbola sinbolikoa euskal kulturaren: Jesus gurutziatzat zuteneko zur-habeak zuhandorrenak omen. Amildegi handiak daude hor, erlijio orok –edo guk gertutik ezagutu dugunak, behintzat–, berez, mamitik beretik, dakarren sublimazio/errepresio sistema hori guztia, ideologikoki berorretatik aldentzen bazara ere, hor sakonean txertatuta gelditzen zaizuna, betiko, nik uste.

Zein irakurle duzu gogoan?

Zuentzat, neure tribuarentzat, neure ingurukoontzat, neure komunitatea-

“Itxia dut poesiaren zikloa. Eta, seguru asko, literaturgintza osoarena”

“Nire barruko mamuak isilarazteko enegarren saiakeratzat ere defini liteke, beharbada, liburu hau”

“Herrikoiago idatzi beharko nukeela iradokitzen du Mikel Antzak gibel-solasean; niri horrela idaztea ateratzen zait, ordea”

rentzat idazten dut. Baina baita neure buruarentzat ere; sentitzen dut inori gaitzi bazai... Autismoan erortzen ote naiz? Ez dut uste. Baina beti dago arriskua, poesian batez ere, hori ere egia da. Mikel Antzak horixe iradokitzen didala uste dut bere gibel-solas mamitsuan: herrikoiago idatzi beharko nukeela –eta erabat errespetatzen dut iritzi hori, noski–, baina niri horrela idaztea ateratzen zait, ordea. Eta –zin dagit, solemneki–, ez da *pour épater*, ez da ezein erudizio demonstratu nahia. Miresten ditut zuhandortasuna haiku batean jasotzeko gai diren idazleak. Baina ni ez naiz kapaz, askoz ere bihurtunetsuagoa da nire bidea.

Lan erraza izan zaizu liburu zail hau osatzeko?

Joan-etorri handiko lana da, ez jolasa. Jolasa, izatekotan, idazketaren azken fasean, derrepente, umetako Fort Apatxetik nire jolasez oroitu nintzenean. Liburuan dago hori ere, eta aurkezpeneko hitzaldian ere luzaro mintzatu nintzen horretaz. Horregatik ageri dira separa-

tan eta liburuaren barne-kontrazaletan indio eta yanki horien irudiak.

Pasarte deigarria duzu hori liburuan: idazle serio, pertsona larri, haurtzaroko jolasean...

Flash bat izan zen, inspirazio bat edo barne-marmar bat, Edgar Lotinantak, halako batean, Niketz kaporolari oroitarazten diona. “Hirurogeita sei urte, eta umetan bezala, jolasean ari nauk!”, esan nion orduan neure buruari. Momentu horiek ere suertatzen dira, batzuetan, liburu baten idazketan, baina ezin zintezke, noski, une horiek noiz etorriko zain egon, zeren, hala baldin bazaude, ez baituzu inoiz ezer idatziko.

Uste duzu hurrengo lanetan ere barruko marmarrek aginduko dutela zure idazkuntzan, edo kanpoko eragileek zuzenduko zaituztela?

Irakurri duzu liburuaren bukaera, eza-gun duzu: “Eten da barbaroa. Isilean beharko abaroa”. Badago halako insatisfakzio-puntu nabarmen bat, Edgarrrek Niketzi zera esaten dionean, gutxi gorabehera: “Hau egin dugu, baina zure hitzontzikeria hori hil egin beharko genuke, poesia beste zerbait da”. Oraingoz poesiaren lantegia itxita daukat; dozena-erdi bat poema liburu idatzita daukat, eta nahikoa da. Itxia dut poesiaren zikloa. Eta, seguru asko, literaturgintza osoarena.

Zikloa itxia zuk? Poema luzea irakurri berri dizut, ba, argitaragabea, Mugaren mugan, Mugalekun.

Baina hori ez da ezer, hori ez da liburu baterako hasikina ere. Poema luze bat da, Maite izeneko pertsona maite baten heriotza-agurra. Oso hunkigarria –niretzat–, eta *Estalien Gradoren* estilotik bestelakoa oso. Nire idazte-lanak bukatu direla esan izan dut, publikoki, beste elkarrizketa batean. Osasunez ongi nago; baina kemenik... horretan sentitzen naiz makal. Baditut bozetoak, badut material dezente, baina nik oso prozesu luzea behar izaten dut lehengai hori dena mamitu eta liburu batean bildu eta antolatzeko. *Vide grenier* egiten ari naiz, oraingoz, “ganbara hustea” alegia, Iparraldean askotan egiten dutenaren antzekoa, ganbaran dauden traste zaharrei hautsa kentzen, antolatzen, baina ez dakit gero zer egingo dudan traste horiekin. ■

IZENBURURIK GABE (2015)

Boligrafoa eta errotuladoreak paper gainean,
29x21 cm

AINIZE SARASOLA Suzko lore eroak



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Gipuzkoako Artista Berrien erakusketarako hautatua izan zen 2013an Ainize Sarasola Ugartemendia (Orio, 1984ko urriaren 12a). Marraskiz osatutako instalazio bat zen, eta testu hauxe zekarren sarrera gisa: “Baina orduan dantza egiten zuten kaleetan zoratutako ziben antzera, eta ni haien atzetik zalantzan, bizitza osoan egin izan dudan bezala, interesatzen zaidan jendea jarraitzen dudan bitartean, interesatzen zaidan jende bakarra zoratuta dagoena baita, bizitzeko irrikaz dagoena, hitz egiteko irrikaz dagoena, salbatzeko irrikaz dagoena, aldi berean gauza guztietarako gogoarekin dagoena, inoiz aho zabalka aritzen ez dena eta leku arruntez hitz



egiten ez duena, aitzitik, sutan dagoena eta izarren arteko armiarma modura lehertzen diren suziri hori ederren antzera sutan dagoena” (Jack Kerouac, *On the Road*, 1957).

Ainize Sarasolaren marrazkietako giroari Allen Ginsbergen *Ulua* poemaren hasiera ere ederto datorkie:

*Nire belaunaldiko buru argienak ikusi
ditut suntsituta
eromenez, gosez akabatzen, histe-
riaz biluzik,
arrastaka beltzen karrketan barrena
ordu txikietan
orratz-zitada amorragarriaren
xerka,*

*aingeru-buru jakitunak behialako lo-
tura zerutiarratik sutan
gaueko tresneriaren dinamo izar-
tsurantz,
txiro eta zarpail eta begi-zuloekin eta
hordi, zutik pipatzen
ur-hotzeko apartamentuetako
iluntasun naturaz kanpokoan
hirietako gailur garaietan gaindi
airean igeri
jazzari arreta jarrita,*

Egunero marrazten du, egunero marrazten ditu kalean ikusten dituen sugeak, kameleoiak, otsoak, lepamoztuak, jendea finean, horrorearen kolore bizietan. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ai, aita!



Amaia Alvarez Uria



Azken patriarka

NAJAT EL HACHMI

Itzultzailea: Jexux Mari Zalakain

Txalaparta, 2016

Najat El Hachmi, Marokon jaiotako emakume idazle amazigh-katalana da Txalapartak abenduan argitaratu zuen *Azken patriarka* lanaren egilea. 2008an argitaratu zen jatorrizkoa, katalanez, eta orain arte hamar hizkuntzatarata itzuli da, Jexux Mari Zalakain izanik euskaratu diguna.

Bi zatitan dago egituratuta, lehenengoan protagonista Mimun Driutx da, aita, azken patriarka. Baina, lan honetako narratzailea bigarren zatiko protagonista da, alaba, izenik gabe agertzen zaiguna. Honek autobiografikoki kontatzen digu, lehen pertsona, bere bizitza bigarren atalean, baina aurretik bere aitaren bizitza kontatzen digu patriarka bat nola eraikitzen den erakutsiz eta bi zati hauen bidez aita-alaba harremanaren garapena marraztuz.

Kapitulu laburretan aurkituko dugu kronologikoki antolatutako bi bizitza hauen kontaketa, ahoz, gordin eta umore ukituez helduko zaizkigu begi-belarrietara poliki harilkatzen dituen istorio bortitz eta gogorak. Marokoko Nadorretik Kataluniako Vic-era bizitzera joan den familia ezagutuko dugu, aita egozentriko-tiranoa, ama txikitu-zapaldua eta bizitzan bere lekua topatu eta bere burua kokatu nahian dabilen alaba izango dira pertsonaia nagusiak.

Hizkuntzari dagokionez amazigha, arabiera eta katalana tarteka agertuko dira “hango” eta “hemengo” zertzeladak orriotara ekarriz. Honekin batera zenbait literatur erreferentzien gidaritza aitortuko da, besteak beste Zadie Smith (jendarte multikulturala irudikatu zuena) eta Merce Rodoreda (belaunaldi desberdinetako ordezkariak errealtatearen

ikuspegiak emanez irudikatu zituen).

Gai nagusiak patriarkatua eta kultur aniztasuna dira. Alde batetik, familia eta bere baitako diskriminazioa, hierarkia eta botere harremanak azaleratuko dira. Beste alde batetik, kultur artekotasuna, erlijioa, migrazioak, eta gaur egungo hirietako identitate konplexuak agerian utziko zaizkigu, moral bikoitza, genero desberdintasunak, aurreiritziak, edo askatasuna eta betebeharren mekanismo bihurriak bistan jarriko dizkigu. Durangoko Azokan aurkeztu zuen liburua egileak eta elkarrizketa batean adierazi zuen idaztea jendearengana hurbiltzeko arma botesetsua dela, mundua eta pertsonak deskubritzeko eta eraldatzeko aukera ematen duena. Liburu honetan argi geratzen dena hauxe da: pertsona politikoa dela, emakume protagonistak bizi duenak egitura sozial bat islatzen duelako, patriarkatua, eta kulturen arteko elkarbizitza hainbat modutan gerta daitekeela, eta gertatzen direla, egiaztatzen baitu. Errealitatea ezagutu eta hausnartzeko lan gomendagarria. ■

Najat El Hachmi (Nador, 1979), idazle katalan-amazigha.



» TELEGRAMA

Amama filmaren estetika gustatu? Erabili zituzten material artistikoetan oinarritutako erakusketa ikusgai dago Gasteizko Montehermoso jauregian otsailaren 26ra bitartean *STOP #AIFREEdo* izenarekin, egun osoko egitaraua prestatu dute otsailaren 11n Amurrion, **Alfredo Ramirez @erreharria** argazkilariaren aurkako epaiketa salatzeke *STOP* Trap zaleek Donostiako Dabadaban dute zita otsailaren 12an: **Kinder Malo** eta **Pimp Flaco** ariko dira zuzenean 20:00etatik aurrera *STOP*

» DISKOA

Pozgarria



Montse Auzmendi

Verdi-ren *Stiffelio* opera

BILBOKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Francesco Ivan Ciampa.

BILBOKO OPERAREN ABESBATZA

Zuzendaria: Boris Dujin.

Eszena zuzendaritza: Guy Montavon.

Bakarlariak: Roberto Aronica, Angela Meade,

Roman Burdenko, Francesco Marsiglia

Euskalduna Jauregia.

Urtarrilaren 21a.

OLBE bueltatu da betiko kalitatezko bideetara. Eskerrak! Oraindik gogoratzen dugu azaroan entzundako *Cenerentola* ahaztezina, eta ez zentzu onean esanda. Kasu honetan, kontrako sorpresa hartu dugu. *Stiffelio* harribitxi bat da, oso gutxitan programatzen dena. OLBERen ibilbide osoan hau da antzezten den lehenengo aldia. Izan zitekeen interes gutxiko obra, eta horrexegatik publikoak ez izatea gogo handirik entzuteko, baina Euskalduna Jauregian Regio di Parma Antzokiaren eta Monte-Carlo Operaren arteko produkzioa disfrutatu ondoren, *Stiffelio* mokadu aparta dela esan dezakegu. Ez da oso luzea, ordu pare bat irauten du etenaldiak kontatzen ez baditugu, eta sentimenduen koktel erakargarria eskaintzen du: amodioa, desleialtasuna, *Stiffelio* protagonistaren desio personalen eta betekizun sozialen

arteko barne borrokak, protagonista bakoitzaren maitasunaren kontzeptu desberdina. Benetan interesgarria. Eta, gauza guztien gainera, Verdi onena dugu titulu honetan. Obertura zinez distiratsu eta argitsua dugu hasiera gisa, eta lanaren aria nahiz abesbatzaren numero batzuk Verdiren momentu ederreren artean koka ditzakegu.

Horrez gain, OLBEk ekarritako produkzio honetan primerako bakarlariak izan ditugu emanaldia erabat biribiltzeko. Bai Roberto Aronica tenorearen ahotsa bai Angela Meade sopranoarena primeran egokitzen dira *Stiffelio* eta Linaren roletara, behar den distira eta ehundura emanez interpretazioei. Hori bai, ez bata ez bestea, ez dira adierazkorrak taula gainean. Hau da, ahots ederrak entzun genituen, malguak, sentimenduz beterikoak, baina, agian eszena zuzendaritza eskas batengatik edota abeslariaren nolabaiteko zurruntasunagatik, ez zuten sinesgarritasun interpretatiborik eskaini.

Angela Meadek entzuleak txunditu zituen. *Oh celo!, dove son io?* edo *Tosto ei disse! A te ascenda, oh Dio clemente* ariak momentu zoragarriak izan ziren. Erraz abesten du sopranoak, ahots biribila eta boteretsua du, txalo-jotze ederrak lortu zituen. Bestalde, Roman Burdenko baritono errusiarrak primerako Stankar egin zuen. Ikaragarritzko ahots ederra erakutsi zuen eta taxuz interpretatu zuen Linaren aitaren rola. Francesco Ivan Ciampa zuzendaria fintasunez aritu zen. Egia esan, alde musikalak, benetan mundiala, konpentsatu egin zuen ahultasun interpretatiboa edo eszenografia pobre/minimalista. Bilboko Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Operaren Abesbatzak, eraginkorrak, beti bezala. ■

Roberto Aronica eta Angela Meade bakarlariak.



Gora osaba Chomsky!

CAPTAIN FANTASTIC

Zuzendaria eta gidioa: Matt Ross.

Aktoreak: Viggo Mortensen, George MacKay, Missi Pyle, Kathryn Hahn, Frank Langella, Hannah Horton, Nicholas Hamilton, Steve Zahn, Ann Dowd, Trin Miller, Samantha Isler, Annalise Basso, Shree Crooks, Erin Moriarty eta Charlie Shotwell.

Iraupena: 118 minutu.

Urtea: 2016.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre



Ipar Amerikako Mendebaldeko basoetan kokatuta, filmaren lehen eszenetik beste AEB batzuk ezagutuko ditugu film honekin: natur paisaje eder, kultura anarkista, herritar kritikoa eta bizimodu alternatibo bat, kapitalismoaren bihotzean, alajaina.

Ez naiz ni inori bitxikeria zinematografikoak deskubrituko dizkiona. Gaiak eta planteamenduak soilik ere merezi du, kronika. Oihanean, eguneroko bizitza erabateko burujabetzan oinarrituta eraiki dute beren paradisua Ben eta sei seme-alabako familia. Amak buruko gaixotasun bipolarra du, ordea, eta azken hilabeteak erietxean emango ditu. Amaren galerak ekarriko du aldaketa familia- ra. Hura agurtzera hirira joko baitute.

Eta hor jarriko dira batzuen eta bes-teen kontraesanak agerian. Filmak umore finez lantzen ditu egungo bizitzaren hamaika zehar-lerro: elikadura, erlijioa, opulentzia, kultura militarra, kulturarik eza, medikuntza eta farmako industria...

Galdera nagusi bat sumatu daiteke Ben (Viggo Mortensen) aitaren baitan:

zer da umeak bizitzarako prestatzea? Guraso orenen kezka, kultura kapitalistan garamatzana etengabeko kompetenziara, besteek egiten badute "badaezpada" egitera, besteek dutena "badaezpada" edukitzera...

Gozamina da filmean ikustea baliok argi dituenak zer irakaskuntza lantzen duen etxean seme-alabekin. Nolako heziketa, zer jakintza mota, eta zer gaitasun lantzen dituen eguneroko bizitzan. Nola bateratzen dituen gorputza, dialektika kritikoa eta espiritualtasuna.

Egoerek larri hartuko dute familia, ordea. Eta gizartearen joeratik hain bereiz aritzearen arriskuak jarriko dizkiete begi aurrean. Hiltzeko arriskua, zigorra jasotzeko arriskua, umeak galtzeko arriskua... eta amaren pentsamendu bipolarrak gainerako protagonistengatik an ikusiko ditugu islatuta. "Kaka zaharra, film ezkertiar bat ikusten hasi, eta alternatibak ezinezkoak direla izango da azken gogoeta?" sumatuko du ikusleak ere, larri, bere burua.

Soilik esango dugu, amaierak bat egiten duela filmak behin eta berriz nabarmendutako balioekin eta esaera iraultzaileekin.

"Baina" txikitxo bat otu zait lehen ikustaldian: filmeko kolektibitate bakarra familia dela. Kapitalismoaren bihotzean baina bihotzez antikapitalista den bizimodua familian antolatua du Benek. Eta familiako beste kideak, amak, huts egitean eraitsi zaio elkarrekin eraikitako mundua. Amaiera etsipenetik urrun badago ere, ez da inongo momentutan kolektibitate ereduak aldatzen. Ez dago antzera bizi den adiskiderik, ez herririka, ez elkarte, ez mugimendu, ez kuadrillarik... Eta familia horretan, aitak du, noski, guztien gaineko autoritatea. Onberatasunez, besteei entzunaz eta bakoitzari bere izaera eta ezberdintasunak errespetatuz kudeatzen duen boterea, baina patriarkala, bere erroan. Filmak luzaz gauditzen ditu ohituta gauden estereotipo, lan banaketa, eta generoaren baitako jarrerak, baina aita aita, hemen ere. ■

Diego Garate. Arkeologoa



ARITZ LOIOLA

Paleolito garaiko labar arte aztarnategi ugari aurkitu eta aurkeztu dira azkenaldion. Bereziki aipagarriak izan dira 2016an Bizkaian Berriatuko Atxurra eta Lekeitioko Armintxe kobazuloen aztarnategi garrantzitsuen aurkikuntzak. Horien atzean ageri da Diego Garate plentziar arkeologoa.

“Gure historiaurrea berridazten ari gara”



Jabi Zabala
@sarean

Adrenalina pizgarria

“Arkeologia beti interesatu zait, Deustun karrera egin ondoren labar artean berezitu eta Arenazan hasi nintzen ikertzen, eta hortik aurrera besteak etorri dira. 2011n Askondokoa aurkitu genuenean uste genuen helduak ginela arkeologo batek amestu dezakeen gorenera, lo egin ezinik egoten nintzen, pentsa, arkeologo gehienek ez dute inoiz aztarnategirik aurkitzen beren bizitzan. Gero dinamika horretan jarraitu dut, etorriko zena jakin gabe. Aurkikuntza bakoitzarekin adrenalina igoera izugarria da. Atxurran itzela izan zen: hemen bisontek, hemen zaldiak... Pentsatzen duzu: hau ez du inork ikusi 20.000 urtean eta hemen gaude gu orain”.

Modan omen dago Paleolitoa Bizkaian.

Tira, hamar urteko lanaren emaitza da, labar artean normalean ez dira urtero aurkikuntzak egiten. Orintsu izan da Santimamiñeren mendeurrena, eta beste hiru kobazulo besterik ez ziren aurkitu ondorengo 75 urteetan, baina azken hamar urteotan ia urtero aurkikuntza baten berri izan dugu. Zergatik? Bada, miatzeko proiektuak jarri direlako abian, espezialista berriak agertu direlako eta teknologia eta teknika aldetik aldaketak, iraultza egon delako. Gipuzkoan gauza bera gertatu da, prozesu paraleloak izan dira.

Zergatik egon gara hainbeste urte Santimamiñe baino askoz gehiago geneukala jakin gabe?

XX. mendean ikerlari bakarra Barandiaran izan zen, Telesforo Aranzadik lagunduta, eta haiek egin zuten dena. Egun, gizon baten inguruan antolatutako eskema hori guztiz aldatu da, espezialistak daude eta lantaldeak egiten dira. Oso gai zehatzetan berezitutako jendea dago, labar artean esaterako, eta baliabideak hobetu dira. Barandiaranek linterna ziz-

trin bat erabiltzen zuten; gaur egun, aldiz, LED argiekin San Mames bezala argiztatu dezakegu kobazulo bat, eta hormak programa informatikoekin aztertu.

Espeleologoekiko elkarlana ere faktore berria da?

Bai, duela hamar urte hasi ginen hiruzpalau arkeologo ikerketa programa sistematikoa egiten, lanetik kanpo, gure aisaldian, baina berehala konturatu ginen espeleologoak behar genituela. Kobazuloetan aztarnategia argia heltzen den lekuan egoten da, baina batzuetan labar artea barrurago ere aurkitu daiteke eta arkeologoak normalean ez gara haraino sartzen, hori espeleologoaren eremua da. Azken hamarkadetan ia harremanik ez da egon, baina Bizkaiko Foru Aldundiak espeleologoentzako jardunaldi batzuk antolatu zituen 2015ean. Arkeologoak eta paleontologoak egon ginen eta aztarnak aurkitzeko irizpideak eta protokoloak eman genizkien. Emaitzak berehala etorri dira: Bizkaian Armintxe, Morgota eta Ondaro; Nafarroan Alkerdi II; Gipuzkoan Aitzbitarte...



Diego Garate, Alkerdi II kobazuloan lanean.

SATORRAK ESPELEOLOGIA TALDEA

Euskal Herrian hutsunea omen zegoen.

Bai, identifikatutako hiru gune garrantzitsuren erdian; Asturias-Kantabria, Pirinioak eta Perigord. Horien arteko harremana egon behar zuen derrigorrez, pasabide bakarra Irun aldea delako. Beraz, eztabaida zegoen “euskal hutsunea” azaltzeko: zergatik hain aztarnategi gutxi? Gure hipotesia ikerketa lan gutxi egin zegoela zen, eta hortik abiatuta bilatzen hasi ginen. Egun, hutsune hori bete egin da neurri handian, dagoeneko baditugu apaindutako 34 kobazulo Euskal Herrian. Aztarnategi gutxi zeudelako irudia zegoen eta orain, aldiz, gure historiaurrea berridazten ari gara.

Gu bezalakoak ziren Paleolitokoak?

Bai, gu bezalakoak fisikoki, baina oso trebeak eta gogorrak, gaur egun haien baldintzetan ez genuke astebete iraungo. Europako aborigenak Neanderthalak ziren, eta duela 40.000 urte heldu ziren gure arbasoak, egungo errefuxiatuek egiten duten ibilbide bera eginda. Neanderthalak baztertu eta lurraldeaz jabetu ziren. Orduan hasi zen artea.

Artea, zertarako egiten zuten?

Magia sinpatikoaren teoria dago, irudia egin errealtatean bihur dadin, baina egia esan ez dugu inoiz jakingo labar artearen esanahi zehatza... Haien mentalitatea eta mundu sinbolikoa duela 20.000 urteko kontua dira. Egun Amazonian topa ditzakegun ehiztari-biltzaileen antzeko bizimodua bai, baina mundu sinbolikoa oso ezberdina izango zen. Arte motak ezberdindu daitezke: kobazuloaren sarreran, arte publikoa da, talde osoarentzat, baina Berriatuko Atxurran, esaterako, aztarnategira heltzea oso zaila eta arriskutsua da. Hiru bat lagun sartu, artelana egin eta agian inoiz ez ziren bueltatu, bertan ikatz zatiak utzita.

Betiko galdutako aztarna batzuk ere dokumentatuta daude.

Mañarian Atxuri kobazuloa harrobiak eraman zuen. Aitzbitarte IV kobazuloan udalak hormak mangerekin-eta garbituak zituela esan ziguten espeleologoek. Auskalo zer zegoen hor. Aitzbitarte V-en bisontea ikusi nuen bide nagusian, ageri-agerian, grafitiz josita dagoen kobazuloa da.

Grafiti garaikideak eta zaharragoak ere bai...

Bai, karlista gerretakoak aurkitu dira Atxurran eta Lumentxan, eta Amorotoko Abitaga koban XIX. mende bukaerako armen gordelekua aurkitu zuten ADES Gernikako espeleologia taldekoek. Dirudienez, Lekeitioko bizilagun batek hirugarren karlistaldia antolatu nahi zuen eta bertan gorde zituen armak. Atxurra grafitiz josia dago, eta bisonte batzuk aurkitu ditugu spray margoen azpian, suntsituta. Zorionez Paleolito garaiko artelan gehienak gorago daude, erlaintz batzuen gainean.

Eta aztarna berriagoak ere agertuko dira leku batzuetan.

Bai, adibidez, Zeauriko Eguzkiola kobazuloan ETak gizon bat eduki zuen bahituta eta, indusketak egitean, lehenengo geruzan horren aztarnak agerikoak dira, oihal etxolak-eta prestatzeko lurra mugitu baitzuten. Beheragoko geruza batean gerra zibileko aztarna ugari aurkitu dira eta, are beherago, historiaurreko gorpuk. Gure historia ia osoko aztarnak zeuden hor; bando gerren garaikoak agertzea falta zen bakarrik. ■



Urkullu epaitu dezaten eskatuko du Gure Esku Dagok, Kataluniaren bideari jarraitzeko



Elkartasunetik konpromisora pasatzeko momentua dela uste du Gure Esku Dago plataformak eta, Artur Mas epaitzietara bidean ikusi ondoren, Iñigo Urkullu ere epaitu dezaten eskatuko du. “Kataluniarrekin bat egiten dugula adierazteko garaia pasa da, euskaldunok ere erabakiaren aroan sartu nahi badugu gure ordezkari politikoak epaitzea da hurrengo urratsa, han egiten ari diren

bezala”, esplikatu du Baratze Nikanor Gure Esku Dagoren bozeramaileak. Orain Urkullu konbentzitzea besterik ez zaie falta, baina adierazi dutenez, negoziatioak bide onean dira: “Guk dagoeneko berratu diogu ez dugula egiten duen ezer kritikatu. Orain zain gaude independentzia prozesua abiatzeko noiz deituko digun, baina aste honetatik ez da pasako, hori uste dugu”.

SAREAN ARRANTZATUA

Arrasaten este aldea under eragozpenez betea



Jesus setan sabis?
Borboiekin o setan sabis?



Azken unekoa: EAJ loratzen ez duen albiste bat argitaratu du Deiak

Alderdi jeltzaleak kudeaketarako dituen dohainak eta berezko sen ona gorapatzen ez dituen albiste bat kaleratu du *Deia*-k otsailaren 5eko edizioan. Egunkariko zuzendaritzak honako esplikaziñoia emon dau usetekabeko jazoeraz: “Tira, ez da hainbesterako, askok leporatzen digute Euzkadira garapena eta hazkundera berriro ekarri dituen Jaurlaritza bikain honen alde ari garela beti, baina mihi gaiztoak baino ez dira”. Halere, konfidente batek jakinarazi digunez, bekadun baten hutsegiteak

eragin zuen ezbeharrak: “Sinetsi egidazue: delako albiste ez da izan egun horretan *Deia*-k kaleratu duen gauza bakarra”. Egunkariko praktika aldia behar baino lehen amaitu eta gero, EGIN hartu dute 36 urteko gaztea.

Aditu batzuen aburuz, ordea, gertakaria ez da hain ohiz kanpokoak: “Behin batean EH Bildu izena inon ageri ez zen azala kaleratu zuen *Gara*-k”, azaldu digu Miren Deontogracias espezialista porrokatuak, baina gero ez du esandakoa dokumentalki frogatu eta ez dakigu ba...





ARGIA

**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAIUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com